

ARETXABALETAKO NERABEEN EUSKARA EZAGUTZA, ERABILERA ETA EUSKARAREKIKO JARRERA



HIZNET 2015/2016

Egilea: Maider Etxaniz Belategi

Tutorea: Iñaki Martinez de Luna

Laburpena.....	3
----------------	---

Sarrera.....	3
--------------	---

LEHENENGO ATALA

1. Testuinguru soziolinguistikoa.....	4
1.1. Biztanleria eta euskararen ezagutza datuak.....	5
1.2. Euskararen erabilera datuak Aretxabaletan.....	6
1.3. Etxean transmititutako hizkuntza.....	9
1.4. Aretxabaletako ikastetxeak eta hizkuntza ereduak.....	12
1.5. Aretxabaletako eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza eta hizkuntza.....	13
1.6. Aretxabaletako euskararen normalkunta dabilta eragileak.....	13
1.7. Aretxabaletako Udaleko euskara zerbitzuaren haur eta nerabeei zuzendutako programak eta zerbitzuak.....	14

BIGARREN ATALA

2. Marko teorikoa.....	16
2.1. Gazteen erabileran eragiten duten faktoreak.....	16
2.2. Ikasleak hiztun. ARRUE proiektua.....	17
2.3. Joshua Fishmanen HINBE proposamena.....	21
2.4. Jose Maria Sanchez Carrion.....	23

HIRUGARREN ATALA

3. Metodologia.....	26
3.1. Ikerketa kuantitatiboak eman dituen emaitzak.....	31
3.2. Ikerketa kualitatiboak eman dituen emaitzak.....	50

LAUGARREN ATALA

4. Ondorioak.....	59
5. Bibliografia	64
6. Eranskinak.....	66

LABURPENA

Eskuarteetan duzun lana bost atal nagusitan banatzen da. Lehendabizikoan, Aretxabaletako ezaugarriak batzen ditugu, Aretxabaletako euskara ezagutza eta erabilera datuak, orokorrak eta adin taldeak banatuak. Aretxabaletako hezkuntza eskaintza formala eta informala, eskolaz kanpoko ekintzak zein hizkuntzatan eskaintzen diren, eta Aretxabaletako euskalgintzaren eskaintzaren eta jardunaren deskribapen bat jasotzen da: ikastetxeak, Loramendi euskara elkarteak, euskaltegiak, udaleko euskaraz zerbitzua besteak beste.

Bigarren atal nagusiak marko teorikoa jasotzen du. Ikerketa hau bere testuinguruan kokatzeko erreferentzia teorikoak aurki daitezke hemen. Hortik jaso ditugu inkesta eta eztabaida taldeak egiteko faktoreak, hizkuntza berreskurapenerako proposamenak, eta beste ikerketa batzuetatik jasotako ondorioen hustiaketa.

Hirugarren atalean, ikerketaren metodologia aurkituko duzue. Ikerketaren helburua, hipotesiak eta aldagaiak azaltzen dira eta horietaz gain ikerketa egiteko erabiliko ditugun teknikak, inkesta eta eztabaida taldea, alegia. Baita horien guztien bitartez lortutako informazioa ere.

Amaitzeko, laugarren atalean ondorioak jasoko ditugu, hipotesiak alderatu eta ikerketaren argazkiak erakusten digun egoera hobetzeko proposamen batzuk luzatzen saiatuko gara.

SARRERA

Aretxabaletako udalean gazteria eta hezkuntza teknikari lanetan nabil gaur egun. Gure sailetik haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuak eta programak eskaintzen ditugu eta zerbitzuetako hezitzaile eta teknikariaren arteko koordinazio bileretan maiz irteten da euskararen egoeraren inguruko kezka. Izan ere, Aretxabaletan haur eta nerabe guztiak dira euskaldunak eta denek euskaraz jakin arren euren artean gazteleraz sarri hitz egiten dutela iruditzen baitzaigu.

Eskuarteetan daukaguen lan honen bitartez irudipen horretan arakatu nahi dugu eta nolabait gure usteak enpirikoki frogatzeaz gain, arrazoiak jasotzen saiatuko gara.

Datu bilketa egin ostean, emaitzek aurkezten duten panoramaren arabera, aurrera begirako pista batzuk jaso nahi ditugu, sortutako argazkiak zer erakusten digun eta zer behar dituen eta nola koloreztatu dezakegun hausnartzeko tresna bat izan dadin.

Horixe da lan honen helburua: Aretxabaletako gazteek euskararekiko duten jarrera, euskaraz hitz egiteko duten gaitasuna eta euskararen erabilera aztertzea.

Gure ikerketa haurren eta gazteen adin tarte honetako transizioan zentratzen da, hau da nerabezaroan, haurtzaroaren azken urteetan eta gaztaroaren lehen urteetan gertatzen dena aztertu nahi dugu, hizkuntza aldaketa adin tarte honetan ematen denaren zantzuak baitugu.

1.TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA


Aretxabaleta Gipuzkoan kokatuta dagoen herri bat da, Bizkaia eta Arabaren arteko muga-mugan, hain zuzen ere. Udalerrriaren hedadura 26 kilometro karratukoa da, eta 2015eko errolda udal datuen arabera 6.945 biztanle ditu Aretxabaletak. Horietatik 3536 gizonezkoak dira eta 3438 emakumezkoak.

Kooperatibismoaren sorlekuetako bat da. Bere adierazle ekonomikoei begirada bat emanez, ikus daiteke Aretxabaletan Industriarekin zerikusia duen lan-jardueraren bat egiten duten biztanleen portzentaia Gipuzkoako batez bestekoaren bikoitza dela. Zerbitzuek ere, udalerriaren ekonomian pisu garrantzitsua dute, herritar askoren langune baitira.

Aretxabaleta herri euskalduna da eta bertakoek euskalki propioa dute, bizkaieraz hitz egiten dute, alegia.

EUSTATEk, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak 2011. urtean jasotako datuen arabera Aretxabaletako biztanleriaren %63a da euskalduna, %20a ia-euskalduna eta %17da soilik da erdalduna. Are gehiago, 1986tik 2011ra ezagutzaren goranzko bilakaera handia eman da. 1986an euskaldun eta ia euskaldunen artean biztanleriaren %73a batzen zuten eta 2011ean biztanleriaren %83a osatzen dute.

Urteak	1986		2011	
Euskaldunak	3286	56%	3945	63%
Ia euskaldunak	1011	17%	1188	20%
Erdaldunak	1586	27%	1101	17%
Hiztunak	5880	100%	6608	100%



1.1. Biztanleria eta euskararen ezagutza adin taldeka

Arestian esan bezala, beheko taulan jasotzen diren datuek adierazten dutenaren arabera, orohar ezagutza asko handitu da, eta igoera hau gehien nabaritu duten adin taldeak, haurrena eta gazteena dira. Hurrenez hurren, euskaldunek 22 puntu egin dute gora haurren artean eta gazteen artean 29 puntu.

Erdal hiztunen datuak ere esanguratsuak dira, izan ere haurren artean %2a bakarrik da erdalduna eta gazteen artean %8a da erdalduna. Biak ala biak oso maila baxuak dira. Esan gabe doa, aipatutako bi adin talde hauek direla guztietatik euskara ezagutza altuena dutenak.

Gutxien dakitenen artean, 65 urtetik gorakoak eta 35-64 urte bitartekoak ditugu, baina egia da 35-64 urte bitarteko erdaldunak jeitsi egin direla ia euskaldunak direnen taldera gehituz.

Horiek horrela zera esan dezakegu, Aretxabaleta euskara ezagutza egoerari dagokionez osasuntsu dagoela eta etorkizun oparoa duela eta urteak pasa ahala gero eta erdaldun elebakar gutxiago dagoela.

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
2-14 urte bitarteko euskaldunak	878	66%	931	88%	697	91%	593	37%	543	76%	782	88%
2-14 urte bitarteko ia euskaldunak	343	26%	110	10%	48	6%	66	19%	132	19%	86	10%
2-14 urte bitarteko erdaldunak	104	8%	22	2%	18	2%	19	3%	38	5%	22	2%
2-14 urte bitarteko hiztunak	1325	23%	1063	18%	763	13%	678	11%	713	11%	890	13%


15-34 urte bitarteko euskaldunak	895	49%	1089	53%	1363	70%	1494	78%	1350	75%	1220	78%
15-34 urte bitarteko ia euskaldunak	411	22%	526	26%	350	18%	293	15%	287	16%	217	14%
15-34 urte bitarteko erdeldunak	529	29%	424	21%	242	12%	126	7%	156	9%	121	8%
15-34 urte bitartekohiztunak	1835	31%	2039	34%	1955	33%	1913	32%	1793	28%	1558	24%
35-64 urte bitarteko euskaldunak	1194	53%	1209	51%	1181	49%	1300	51%	1466	52%	1539	51%
35-64 urte bitarteko ia euskaldunak	232	10%	349	15%	410	17%	582	23%	667	24%	872	29%
35-64 urte bitarteko erdeldunak	808	36%	792	34%	799	33%	677	26%	676	24%	590	20%
35-64 urte bitarteko hiztunak	2234	38%	2350	39%	2390	41%	2559	43%	2809	45%	3001	45%
65 urtetik gorako euskaldunak	316	65%	386	63%	466	64%	518	60%	586	59%	623	54%
65 urtetik gorako ia euskaldunak	25	5%	26	4%	29	4%	74	9%	102	10%	168	14%
65 urtetik gorako erdaldunak	145	30%	196	32%	233	32%	276	32%	309	31%	368	32%
65 urtetik gorako hiztunak	486	8%	608	10%	728	12%	868	14%	997	16%	1159	18%
Guztira	5580	100%	6060	100%	5836	100%	6018	100%	6312	100%	6608	100%

1.2.Euskararen erabilera Aretxabaletan

Datu orokorrak

Aretxabaletan 20011z geroztik egiten da Euskararen Kale neurketa eta horrek erabileraren inguruko tendentziak jakiteko bidea ematen du. Hala, azken 20 urteotan, Aretxabaletan euskararen erabilerak 5 puntu igo baditu ere azken 10 urtetako datuek erabilera gorabeheratsua adierazten dutela dirudi. Grafikak jaso bezala, lehenbizi beheranzko joera eta ondoren goranzko igoera motela ematen dela ikus daiteke. Deigarria da, alderantziz, gaztelerak bizi duen beheranzko joera, bestelako erabileren alde.

	2001	2003	2004	2008	2011
Euskara erabilera	54,50%	42,60%	43,20%	43,90%	49%
Gaztelera erabilera	45,50%	57,40%	56,80%	55%	48,90%
Bestelakoen erabilera	0,00%	0,00%	0,00%	1,10%	2,20%



2011ko kale erabilera datuen arabera euskaraz biztanleen %49ak hitz egiten du. Ezagutza datua %63a dela kontuan hartuta, Txillardegiaren erabilera isotropikoari erreferentzia eginez, zera esan daiteke: euskaldun batek daukan euskaraz hitz egiteko probabilitate eta aukeren gainetik dagoela erabilera kopuru hau eta ondorioz Aretxabaletak komunitate euskaldun trinkoa duela.




1.3. Adin tartekak

Adin tarteei erreparatzen badiegu, alde handiak daudela ikus daiteke. Hona lau multzotan banatuta erabilera datuak: umeak (2-14 urte), %70,8; gazteak (15-24), %36,2; helduak (25-64), %39,9; eta nagusiak (65 urtetik gora), %40,9. Hala, gazteak dira egun euskaraz gutxien egiten dutenak, eta neurketa egiten denetik jasotako emaitzarik baxuena da eskuartean darabilgun azkena.


	2001	2003	2008	2011
2-14 urte bitartekoen euskara erabilera	76,50%	58,10%	53,70%	70,80%
2-14 urtekoen gaztelera erabilera	23,50%	41,95	45,80%	28,85
2-14 urtekoen bestelako erabilera	0,00%	0,00%	0,50%	0,40%
15-24 urte bitartekoen euskara erabilera	60,90%	32,90%	51,70%	36,20%
15-24 urtekoen gaztelera erabilera	39,10%	67,10%	48,30%	58,10%
15-24 urtekoen bestelako erabilera	0,00%	0,00%	0,00%	5,70%

25-64 urte bitartekoen euskara erabilera	39,70%	32,60%	38,90%	39,90%
25-64 urtekoen gaztelera erabilera	60,30%	67,10%	59,00%	56,90%
25-64 urtekoen bestelako erabilera	0,00%	0,00%	2,10%	3,10%
65 urtetik gorakoen euskara erabilera	58,20%	32,60%	39,30%	40,90%
65 urtetik gorakoen gaztelera erabilera	41,80%	67,40%	60,70%	59,10%
65 urtetik gorakoen bestelako erabilera	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%


Lehen hizkuntza Aretxabaletan




Haurren lehen hizkuntza



Gazteen lehen hizkuntza





Aretxabaletako etxe gehienetan gaztelera hitz egiten da. Goian ikus daitekeen bezala, ezagutza %63an badago ere, etxean euskara erdiek baino zertxobait gehiagok erabiltzen dute, %52ra iristen dira euskaraz eta gaztelera gehituta. Horrek zera esan nahi du euskaldun portzentai batek gaztelera hitz egiten duela etxean. Arrazoietan ezin dugu arakatu, bikote mistoak izan daitezke kasu batzuetan, bestetan gaztelera erraztasun gehiago izatea edota bestelako arrazoiaren batzuk.

Egia da, euskararen etxeko erabilera datua kaleko erabilera datuarekin alderatzen badugu Aretxabaletako kaleetan euskaraz, etxeetan baino gehiago egiten dela ikus dezakegu.

Begira dezagun zer gertatzen den haurren eta gaztetxoaren etxeetan:

Horren testigu goian ageri diren datuak ditugu, izan ere datu orokorrek erakusten duten berdina

Haur eta gazteen etxeko hizkuntza	1991		1996		2001		2006		2011	
Euskara 2-14 urtekoen artean	435	41%	293	38%	251	37%	242	34%	355	40%
Gaztelera 2-14 urtekoen artean	386	36%	254	33%	236	35%	287	40%	372	42%
Biak 2-14 urtekoen artean	240	23%	215	28%	190	28%	180	25%	148	17%
Beste bat 2-14 urtekoen artean	2	0%	1	0%	1	0%	4	1%	15	2%
Biztanleak	1063	18%	763	13%	678	11%	713	11%	890	13%
Euskara 15-34 urtekoen artean	631	31%	705	36%	736	38%	619	35%	580	37%
Gaztelera 15-34 urtekoen artean	1038	51%	882	45%	810	42%	838	47%	662	42%
Biak 15-34 urtekoen artean	361	18%	364	19%	360	19%	326	18%	274	18%
Beste bat 15-34 urtekoen artean	9	0%	4	0%	1	0%	10	1%	42	3%
Hiztunak	2039	34%	1955	33%	1913	32%	1793	28%	1558	24%

adierazten baitute, kalean euskara gehiago erabiltzen dela haur eta gazteen etxeetan baino. Aretxabaletan ezagutzak azken 20 urteotan gora egin duen arren, haurren etxeetan zertxobait jeitsi egin dela esan genezake eta gazteen etxeetan erabilera igo egin dela. Gazteen etxeetan 6 puntu igo da euskararen erabilera eta 9 jeitsi gazteleraren erabilera. Igoera motela den arren, garrantzitsua da.

Datuak datu, ezagutzan gora alde nabarmenean egin bada ere, orohar erabileran ez dela nabarmen islatu ikus daiteke, desoreka handia ematen da eta desoreka hori batez ere haurren eta gazteen adin tartean daukagu. Egia da, bi adin tarte oso zabalak direla eta datuak asko alda daitezke 15 eta 34 urteko gazteen artean edota 3 eta 14 urtekoen artean. Horregatik, gure ikerketa bi adin tarte honetako transizioan zentratzen da, nerabezaroan.

1.4.Aretxabaletako hezkuntza eskaintza eta hizkuntza eredua

Hezkuntza eskaintza zabala dago Aretxabaletan. Datozen lerroetan laburtuta jaso ditugu gehiegi ez luzatzearren. Hona hemen ikastetxeen zerrenda eta hizkuntza ereduen ezaugarriak:

Aretxabaletan haurtzaindegia zerbitzutik hasi eta batxillergora arteko irakaskuntza D ereduan eskaintzen da.

Pausoka izeneko haurtzaindegia zerbitzu bakarra dago udalerrian, udal haurtzaindegia zerbitzua dena eta D ereduan eskaintzen dena. 0-3 urte bitarteko haurrei dago zabalik.

Lerro publikoan, Kurtzebarri eskola eta Kurtzebarri BHI ikastetxeak ditugu. Bi eraikin hauetan HH-LH eta DBH ikasketak eskaintzen dira. Denek D ereduan irakasten dute. Lerro publikoan batxillergoa ez da eskaintzen herrian eta behin BHI amaituta, bertako ikasleak Arizmendi ikastolako Almen gunera edo Arrasateko Institutura joaten dira.

Lerro kontzertatuan, Arizmendi ikastola daukagu, eta ikastetxe hau Aretxabaletako udalerrian 2 eraikin desberdinetan banatzen da: Basabeazpi, HHko haurrei zuzendutako eraikina, eta LH, DBH eta Batxillergoa, Almen gunea bezala ezagutzen den eraikinean eskaintzen da. Almen gunea Eskoriatzako Torrebaso auzoan kokatuta dago, Aretxabaleta eta Eskoriatza batzen dituen errepide erdialdean hain zuzen ere. Almen gunean, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Arrasateko eta Leintz Gatzagako haur eta nerabeak batzen dira. Arizmendi ikastolak D ereduan irakasten du.

Aretxabaleta Lanbide Eskola LHlan erdi eta goi mailako ziklo eskaintza oparoa ematen da. Erdi mailako zikloetan esaterako, ondoko ikasketak egin daitezke: Erizaintzako zaintza osagarriak, A, B eta D ereduetan, soldadura eta galdagintza A eta D ereduetan, mekanizatua D ereduan, ibilgailuen karrozeria D ereduan, eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta A ereduan.

Goi mailako zikloetan eraikuntza metalikoa A eta D ereduetan eskaintzen da.

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate Fakultatea. Fakultate honetan ikus entzunezko komunikazio gradua eskaintzen da. Gradua euskaraz irakasten da.

1.5. Aretxabaletako eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza

Aretxabaletako eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza nagusiak zerrendatzen dira jarraian. Guztiak, ez bereziki, baina adin tarte honi zuzendutako eskaintzak ere badira eta gehienak euskaraz eskaintzen direla diote arduradunek. Hona hemen aurki daitezkeen arrakastatsuenak:

- **Pintura ikastaroa:** euskaraz
- **Zirku tailerra:** euskaraz (nerabe gutxi batzuk hartzen dute parte)
- **Gaztelekua:** euskaraz
- **Musika eskola:** dantza, musika edo instrumentuak. Orohar eskaintza euskaraz da.
- **Ibarra kiroldegia:** gazte spinning, xunba... gazteei zuzendutako ekintza denak euskaraz dira, baita nagusiei zuzendutakoak ere.
- **UDA: kirol elkarteak :** Elkarte honen baitan, lau kirol lerro eskaintzen dira: futbola, gimnasia erritmikoa, karate eta pelota. Gimnasia erritmikoa izan ezik gainontzeko guztiak euskaraz eskaintzen dira.
- **Arizmendi kirol elkarteak:** Elkarte honek 3 kirol lerro eskaintzen ditu: futbola, boleibola eta igeriketa eskola. Guztiak euskaraz eskaintzen dira.
- **Xake taldea:** eskaintza euskaraz da (nerabe gutxi batzuk hartzen dute parte)

1.6. Euskararen normalizazioaren aldeko lana Aretxabaletan

Aretxabaletako euskara zerbitzua, Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak, Lekaixo bertso eskola, Leintz udal euskaltegia eta arestian azaldu diren Aretxabaletako ikastetxeak dira euskararen normalizazioan eragile gisa lanean ari direnak. Horregatik, labur bada ere, egiten duten lana azaltzea garrantzitsutzat jo behar dugu gure ikerlanaren kokapenerako. Hona hemen:

1.6.1. Herriko eragileak

- **Loramendi euskara elkarteak.** Urte luzez lanean ari den elkarteak da, herri mailan oso uztartuta dagoena. Loramendik, kultur ekintza eta ikastaro asko antolatzeaz gain, udal zerbitzu eta programa batzuen kudeaketa esleitura ditu. Hiru finantza iturri nagusi ditu: bazkideen kuotak, Aretxabaletako Udalaren dirulaguntza eta haurrei zuzendutako zerbitzu batzuen esleipena. Gaur egun Loramendi euskara elkarteak teknikari bat dauka egun osoz bertan lanean.
- **Leintz euskaltegia.** Udal euskaltegia da Leintz bailarako ikasleak jasotzen ditu bertan, Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikasleak batez ere. Askok dira beren geletan euskalduntutakoak eta etorkizun batean ere euskalduntzea espero direnak.

- **Lekaixo bertso eskola.** 2013an sortu zen Aretxabaletan. Gaur egun, haurren talde bat eta helduen talde bat ditu martxan eta ikasturtean zehar Aretxabaletako Gaztelekuan batzen dira eskolak emateko. Herri mailan ekintza asko antolatzen ditu elkarte honek eta indartsu dagoela esan behar da.

1.7.Udaleko euskara zerbitzutik haurrei eta nerabeei zuzendutako programak

Udal euskara zerbitzua urte luzez dago martxan Aretxabaletan, eta hauetan guztietan hamaika ekimen antolatu ditu euskararen sustapenari begira, eta proiektu guzti horiek jasotzea askotxo dela ikusita, zuzenean edo zeharka, haurrei eta nerabeei eragiten dietenak azalduko ditugu, horiek baitira gure ikergaiaren xede taldeak.

- **Familia transmisioan eragiteko programak**

Hizkuntzaren transmisioan eragiteko helburuarekin urtean zehar ondoko ekintzak antolatzen dira euskara zerbitzutik:

Irrati tarteetan publizitatea emititzen da, haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igortzen dira, zine emanaldietan euskararen erabilera sustatzen duten spotak ematen dira, gurasoei zuzendutako euskara ikasteko tailerrak antolatzen dira. Gabonak aurretik Euskal Produktuen katalogoa igortzen da etxeetara, irakurzaletasuna sustatzeko Bularretik Mintzora programa lantzen da bai haurrekin zein gurasoekin.

- **Haur eta gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko zerbitzu eta programak**

Hauetako batzuk, Loramendi euskara elkarteak kudeatzen ditu.

Euskaraz jolasten programa: haur eta gazteei hizkuntza baliabideak ematea du helburu duen proiektua da. Haurrak hizkuntza gaitasuna hartzen doazen neurrian eguneroko bizitzan txertatzen laguntzea nahi da. Guzti hau aisia eta aisi ekintzak oinarri hartuta eramaten da aurrera. Loramendi euskara elkartearen baitan dagoen Poxpolin taldea aritzen da ekite honetan eta ikasturtean zehar eskaintzen da programa hau. Hizkuntz etorkinei zuzenduta dagoen programa da.

Gazte zoro: garai bateko kuadrillategi bezala ezagutzen den egitasmoa da. Ttakun elkartearen gidaritza eta formaziopean gauzatzen da eta Loramendi Elkartearen Poxpolin taldea aritzen da honetan. 10-12 urteko gazteei zuzendutako euskarazko aisi eskaintza luzatzea du helburu Gazte Zorok. Izan ere, nagusiegiak dira adin tarte honetan ludotekan parte hartzeko eta gazteegiak gaztelekura joateko.

Proiektuan jasotzen denaren arabera, adin tarte honetan lagun taldeetako hizkuntza definitzen hasten da eta garrantzitsua da euskararen hautuan eragitea.

Algara ludoteka: 3-12 urte bitartekoei zuzendutako zerbitzu hezitzailea da. Udal mailan gazteria zerbitzuaren ardurapean dagoen arren, beste helburu hezitzaile batzuez gain euskararen erabileraren sustapena bultzatzen du.

Gazteleku zerbitzua: 12-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako zerbitzua da. Aisialdian gozatzeko zerbitzua da eta ludotekan bezala gazteleku proiektuaren helburuen artean euskararen erabileraren sustapena jasotzen da.

- **Ikastetxeekin elkarlanean aurrera eramaten diren programak**

Zergatik ez? Soziolinguistika saioak

Gazteen euskararen erabileran eragitea eta erabilera bultzatzea helburu duen sentsibilizazio programa bat da. Horretarako gazteen artean hizkuntzen eta bereziki euskararen gaineko gogoeta sustatzen da: zergatik erabiltzen duten euskara edo zergatik ez duten erabiltzen. Erabiltzeak eta ez erabiltzeak dituen ondorioen inguruko hausnarketa bultzatzen da. Hots, euskara hizkuntza erabilgarri gisa aurkezten zaie.

Euskaldun erreferenteak edo euskaldunen eredu erakargarriak aurkeztea eta euskaraz bizitzeko sortu ahal zaien gogoia bideratzea dira besteak beste programa honek lortu nahi dituenak. DBHko gazteei zuzenduta dago. 90 minutuko 2 saio egiten dira, eskola orduetan eta 2 ordu eta erdiko beste saio bat egiten da gaztelekuan, irakaslearen presentziarik gabe.

Motibazioaren ontzia. Kurtzebarri ikastetxeko ikasleen euskararekiko jarrerak lantzeko proposamena.

2014/2015 ikasturtean jarri da lehen aldiz martxan EBETE euskara zerbitzuaren eskutik, LH6ko ikasleei zuzenduta. Proiektu honen helburua jarreretan eragitea da. Batez ere ikasleen arteko harremanetan finkatzea bilatzen da, hau da, beraien arteko harremanetan euskaraz egiteaz gain euskaraz egin nahi izatea.

Labur-labur, erabileran eragiten duten faktore batzuk aukeratzen dira: Hizkuntza gaitasuna, ingurune hurbila, identitate kolektiboa, pertsona eta talde erreferenteak, harreman sareetako hizkuntza arauak, hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa, euskara balio indartsuekin lotzea, egoera soziolinguistikoaren gizarte pertzepzioa eta kontsumo eskaintza. Faktore horien jarreran eragiteko ariketa batzuk egiten dituzte ikastetxean, ikasturtean zehar.

2. MARKO TEORIKOA

Ikerketa honen marko teorikoaren oinarrian euskararen ezagutzaren, erabileraren eta euskararekiko motibazioaren inguruko hainbat lan hartuko ditugu erreferentziazat. Gure lanerako interesgarriak diren pasarte batzuk aukeratuko ditugu, gure ikergaiarekin lotura dutenak, hau guztia, denak papereratzea ezinezkoa delako.

Lehena, gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa izango da, bigarrena Arrue proiektua Ikasleak Hitzun bezala ezagutzen den ikerketa eta hirugarrena Fishman eta Txepetxten teorioak erabiliko ditugu, hizkuntza gutxituen berreskurapenerako proposatzen dituzten bideorriak, alegia.

Lan hauek euskararen ezagutzari, erabilerari eta euskararekiko gazteek duten jarrerari erreparatzen diote, eta horiek oinarri eta eredu hartuta egituratu da eskuartean duzun ikerketa honen ikergaia, inkestetarako aztertu beharreko faktoreak eta eztabaida talderako gidoia, hain zuzen ere.

2.1. Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa

Aurretik esan bezala, ikerketa honen helburua nerabeen hizkuntza gaitasuna, erabilera eta motibazioa aztertzea bada, ezinbesteko tresna dugu Soziolinguistika Klusterrak, Gipuzkoako Urtxintxa eskolak eta Topaguneak, euskara elkarten federazioak, elkarlanean egindako lana aintzat hartzea. Gazteen hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreen azterketa ereduaz ari gara, Euskal Herrian topa daitezkeen testuinguru desberdin guztietarako baliagarri izan dadin diseinatu duten ereduaz hain zuzen ere.

12 eta 30 urte bitarteko gazteek eremu ez formalean hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreen zerrendatzea lortu zuten 2011an. Metodologikoki interesgarria izan zen elaborazioa bi arrazoigatik batez ere: batetik adituak aritu zirelako eta bestetik eremu geografiko desberdinetan eta adin talde desberdinetako gazteekin egin zituztelako saioak.

Faktoreak hiru dimentsioetan eta hiru multzokatzetan banatuta daude. Maila indibidualean, maila mikrosozialean eta maila makrosozialean, ezagutza, motibazioa eta erabilera matrizearen arabera sailkatuta.

Segidan, multzokatze eta zerrendako hainbat faktore jasotzen dira:

Maila indibidualean eragiten duten faktoreak: hizkuntza gaitasuna, haurtzaroko hizkuntza ingurunea, jarrera eta portaerak, identitate kolektiboak.

Maila mikrosozialean eragiten duten faktoreak: hizkuntza gaitasuna, harreman sareetako hizkuntza arauak eta ohiturak, hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa eta egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa, pertsona eta talde erreferenteak.

Maila makrosozialean eragiten duten faktoreak: pertsona eta talde erreferenteak, kontsumo eskaintza (produktuak eta zerbitzuak); input mediatikoak, testuinguru politikoa.

Ezaguna da, aditu askoren ahotan eta ikerketa askorek eman duten ondorioetan, gazteek adierazkortasuna lortzeko baliabiderik eza dutela, esaera zaharrak eta lokuzioak ez dituztela ezagutzen, gaztelaniak komunikabideetan duen presentzia edota gazteen intereseko gaietan erreferentzia gehienak gazteleraz egotea dira besteak beste euskarak dituen hutsuneetako batzuk gazteen artean. Guzti horien erreferentziak datozen lerroetan jasoko ditugu. (Amonarraiz, 2002:3).

Besteak beste, Kike Amonarrizen hitzak ditugu horren lekuko, berak behin baino gehiagotan nabarmendu baitu gazte hizkerari leku askotan adierazkortasuna falta zaiola (Amonarraiz 2016:22). Haserretzeko eta adarra jotzeko baliabideak murrizak dituztela, eta testuingurua zenbat eta euskaldunagoa izan orduan eta erreztasun handiagoa daukatela euskaraz adierazteko. Aretxabaletan hori nola ematen den aztertzen saiatuko gara.

Ikerketa honen inkesta eta eztabaida taldea egiteko ondokoak izan dira aukeratu ditugun faktoreak:

Hizkuntza gaitasuna, harreman sareetako hizkuntza ohiturak, hizkuntzaren egoerarekiko nerabeen pertzepzioa, kultur eta teknologia berrietako hizkuntza kontsumoa eta euskararekiko duten atxikimendua. Hori guztia, Aretxabaletako nerabeen artean, ondoren, maila indibidualetik, maila mikrora eta maila mikrotik maila makrora lan egiteko bide orria diseinatzeko pista batzuk jaso ditzakegula uste baitugu.

2.2. Arrue proiektua

ARRUE proiektuak 2011an EAEko LHM4 eta DBH2ko ikasleen eskola-giroko hizkuntza erabilera azterketa jasotzen du, unibertsoa EAEko ikasmila hauetako ikasle guztiak osatu zuten, metodologia kuantitatiboa erabili zuten horretarako, eta teknika gisa inkestaz baliatu ziren.

ARRUE proiektua ikastetxeetako hizkuntza erabileran zentratzen bada ere, erabilera honetan eragiten duten beste zenbait aldagai ere aztertzen dituzte, gure ikergaiarekin lotura dutenak. Horregatik, ARRUE proiektuan jasotzen diren hainbat datu interesgarriak dira Aretxabaletan ere nola ematen diren aztertzeko, gure ikerketaren helburuarekin bat datozelako. Egia da, bestalde emaitza orokorrekin emandako datuek, portzentaiek alegia, ez digutela balioko Aretxabaletako errealitatearen ispilu gisa, EAEko argazkia delako eta herri bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoaren arabera portzentai hauek aldatu egiten direlako, edota ikasleen

ikastereduaren arabera ere datuak aldatu egiten direlako ikerketan frogatu den bezala. Dena den, Barkaldoko eta Aretxabaletako nerabeen artean erabilera portzentaiaetan aldea badago ere hainbat joeretan oso antzekoak izan daitezke. Horiek horrela, ARRUE proiektuak, eskaintzen dituen hainbat datu oinarri hartuta eraiki ditugu ikerketa honen hainbat hipotesi.

ARRUE proiektuak, eskola giroko hizkuntza erabilera azterketak, emandako ondorio batzuk aurkeztuko ditugu segidan, gure ikerketarako interesgarrienak direnak gure iritziz, eta Aretxabaletako nerabeen artean nola ematen diren ikertuko ditugunak, baina 2 ikasmaita hartu beharrean nerabezaroan ematen diren 4 ikasmaitetan zentratuko gara, urtetik urtera aldaketak ematen badira, nola eta noiz ematen diren identifikatzeko.

Hona hemen gure proiektuaren intereserako Arruek emandako ondorioak:

1.-Gela barruko erabilera ikasleen artean

Ikaskideekin gela barruan egiten den hizkuntzaren erabilera-mota aldatu ez ezik irauli ere egiten da aztertutako ikasmaita batetik bestera: LMH4n ikasleen gehiengoak euskaraz aritzen da ikaskideekin gelan (%60a, beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago) eta DBH2n gehiengoak gaztelaniaz aritzen da (%60 ia beti gaztelaraz edo gaztelaraz euskaraz baino gehiago)

2. Ikaskideekin jolasorduan duten erabilera

Ikaskideekin jolaslekuan beti gaztelaniaz edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago aritzen dira aztertutako 2 ikasmaitetan, baina emaitzak desberdinak dira maila batean edo bestean. LMH4n ikasleen %59a beti gaztelaniaz aritzen da edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago. DBH2n, ikasleen %75ra igotzen da portzentai hori.

Bi maila horien artean ematen den desberdintasunaren inguruan Lionel Jolyk egindako emaitzen inguruko analisi txostenean jasotako ekarpen interesgarria jasoko dugu segidan, horrela dio(Joly, 2011:273):

“gaztetxoak 12-16 urte bitartean, bete-betean kokatzen dira nerabezaroan. Txikienetik handienera 4 urteko aldea besterik ez dago, baina, nerabeen kasuan oso garrantzitsuak dira. Aldaketa soziopertsonalean eta kognitiboan garapen handia gertatzen da urte horietan. 12koak haurtzaroari lotuagoak daude oraindik eta 16koak alderantziz nerabezaroan erabat sartuta.

Adin tarte honetan erreferentziak aldatu egiten dira, haurtzaroan gurasoak diren neurrian, nerabezaroan gizartea da, laguntaldea... erreferentzia nagusia. Nerabea mundura irekitzen da eta zabalpen honekin garapen kognitibo eta linguistikoa ere gertatzen da.

Nerabezaroan autonomizazio prozesu bat ere ematen da eta honen ondorioetako bat autoritatea zalantzan jartzeko joera da. Autonomizazio prozesu honek hizkuntza ohituretan ere eragina du. Hizkuntzei eta hizkuntzen erabilerei jarrera batzuk eta aurreiritzi batzuk lotuta daude eta beraz hizkuntzaren erabilerak berak zentzu propioa du. Euskara umeen hizkuntza dela eta erdara helduen hizkuntza edo antzeko aurreiritzi bat zabaldua dago gazteen artean, helduen autoritatea zalantzan jartzeko eta nagusien adin taldearekin gehiago identifikatzeko gazteek erdara erabiltzeko joera edukiko dute, eta gertaera hori normalean ez da agertzen umeen kasuan. “

Adinaren garrantzia maiz ageri da ARRUE proiektuan, aditu askok erreparatzen diote, Iñaki Iurrebasok euskararen bizitza-zikloa lan hipotesiaren formulazioak dio (Martinez de Luna, 2011:119), haurrak direla euskaldunenak ezagutzen eta erabileran. Nerabezaroan, hizkuntza ohiturak erdeldundu egiten dituztela askok. Urteak egin ahala erabilera berreskuratu egiten dutela hainbat gaztek. Gero, behin helduarora iristean haurrei “hizkuntza transmisioa” ustez beteta berriro ere erderara jotzeko ohitura errepikatzen dela.

Baieztapen hori oinarritzat hartuz, 12-16 urte bitartean aldaketarik ematen bada bilakaera hori nola ematen den aztertuko dugu. Besteak beste, 12 eta 16 urte bitartekoen urtez urteko hizkuntza ohiturak, eta gaitasunak ikertuko ditugu.

3.- Irakasleekiko harremanean euskararen erabilera

ARRUE proiektuak jasotako datuen arabera euskara erabilera maila altuena harreman hauetan ematen da, ikasle irakasleen artean, bai eskola barruan zein eskolatik kanpo. Horrek eskola euskararen gotorleku gisa irudikatzen du eta irakaslea euskararen erreferentzia. Eskolarentzako eta irakaslearentzat zama handiegia da, erantzunkizun handiegia eta emaitza mugatuak emango dituen.

Horrela adierazten da 2011ko ARRUE ikerketari NOLEGATIK egindako irunzkinetako pasarte batean. (Artola, Izagirre, Iturain 2011:185)

“ARRUEren kasuan, ondorioak eskolatik askoz haratago doaz, gizarte osoari dagokio hausnarketa autokritikoa egitea. Ikerketan nabarmen ageri da eskolak berak bakarrik ezin duela. Are gehiago, lan horretan nabarmen geratzen da eskola ondo ari dela, hobetzeko asko badu ere. Hortaz, euskal gizarteak ondorioak atera beharko ditu. Arrue ikerketaren emaitzen harira eta erantzukizunak hartu.”

Aretxabaletan irakasle-ikasle arteko harremanean zer gertatzen den jasoko dugu.

4.-Ikasleen arteko eskolako hizkuntza-erabileen lotura nabarmena dute ikasleek eskolatik kanpo familian zein bestelako gizarte alorretan bizi duten errealitate linguistikoarekin eta aldatu egiten dira errealitate horien arabera.

Ikasle gazteagoetatik helduagoetara, ingurunean nagusi den hizkuntza erabileraren arau sozialekin konbergentzia egiteko edo bateratzeko ematen da hau. Horren adibidea dugu, LMH4n, bere etxeko lehen hizkuntza gaztelania duten ikasleen %49a euskaraz aritzen da gela barruan bere ikaskideekin beti edo gehienetan, DBH2n, proportzio hori %13koa da. Guraso, irakasle eta gizartearen arteko elkarlana aldarrikatzen da euren ekarpenean, euskararen erabilera eskolaz kanpo hedatzeko, alegia.

5.-Ikasleen eskolako erabilera orokorrak beste aldagai batzuekin nolako loturak dituzten aztertu da.

LMH4ko ikasleen artean, loturarik handiena duen aldagaia hizkuntza eredua da, eta DBH2ko ikasleen artean berriz, hizkuntza erabilera eskolaz kanpoko jardura antolatuetan aldagaia da aztertu direnen artean.

Aretxabaletako kasuan denak D ereduan ikasten dutenez lehen aldagaiari ez diogu garrantzirik eman baina bai iruditzen zaigu ezinbestekoa bigarren aldagaia aztertzea, eskolaz kanpoko ekintzei buruzkoa, nahiz eta txosten honetan herriko testuinguru atalean eskolaz kanpoko ekintzak zein hizkuntzatan eskaintzen diren jasotzen den, gaztetxoei ere galdetuko diegu ea beraiek zein hizkuntzetan bizi dituzten ekintza hauek.

6.-Ikasleen hedabideen kontsumo hizkuntza nagusia gaztelania da, alde oso nabarmenarekin.

Kontsumo horien artean irratia da euskaraz gehien kontsumitzen dena. Aitzitik, telebista kate euskaldunen kontsumoa oso txikia da.

2011ko ARRUE ikerketari NOLEGAK egindako irunzkinean horrela jasotzen da (Artola, Izagirre, Iturain 2011:196) *“gaur egun eta gure ustez, konponbide zaila du oso bi arrazoi direla medio: batetik, kalitatean lehiatu beharko da euskarazko telebistak gainerako guztiarekin ikusle kopurua irabaziko badu, besteek egiten duten telebista mota berbera egin nahi bada behintzat; eta bestetik badirudi belaunaldi digital berriak telebista albo batera uzten ari direla, gero eta gehiago.”*

Aretxabaletako kasuan, Euskal telebistaz gain, Goiena telebista ere badago. Goiena komunikazio taldeak indar handia du bailaran, komunikazioan erreferente bat dela esan genezake. Horregatik, inkestan komunikabideak, irratia, telebista, egunkari, internet eta musika zein hizkuntzatan kontsumitzen duten galdetuko dugu, nerabeen kontsumoan euskarak daukan presentzia aztertzeko.

Komunikabide eta kultur kontsumoari lotuta, Arrue txostenaren ondorioetako adituen iritzia azalpenean, Nekane Goikoetxeak, kultur kontsumoaren garrantziari erreparatzen dio. Ane

Larrinagak eta Josu Amezagak egindako tesiak papereratzen ditu horren testigu. Nekanek dio gizarte aldaketek eta postihiritartze prozesuek euskararen erabilerari dagokionez kristalezko sabaia jo dutela. Euskarak, gizartean duen kapital sinboliko-pragmatikoan eragin behar duela eta horretan kulturgintzak arreta handiagoa behar duela aldarrikatzen du, Ane Larrinagak esandakoarekin lotuz (Goikoetxea,2011:247): *“hizkuntza komunitatearen praktika linguistikoak aztertzerakoan kontuan hartu beharko litzatekeela kulturgileek hizkuntzari buruz sortzen dituzten irudikapenak eta lan intelektual horren bitartekaritza lana. Hizkuntza komunitateko kide sentituko bagara, kulturaren premia dugu. Besterik da, kulturgileen lanak nerabeen artean edota gizartean nahikoa presentzia duten. “*

Beste hainbeste dio Josu Amezagak (Goikoetxea, 2011:247), euskal musikak, euskal gizartean botere sinbolikoa eraikitzeke izan duen garrantzia aztertzen du bere tesian.

7.-Gazteen artean dena gaztelaraz egiten dutenak kopuru berdinak dira leku guztietan. Dena den, herria zenbat eta euskaldunagoa izan orduan eta euskara gehiago erabiltzen dute gainontzekoek. Gogoan izateko ondorioa delako jaso dut hemen. Egoera diglosiko baten bizi diren hizkuntza gutxituetan, ahaleginak eginda ere, gaztelaraz beti egingo duen jendea aurkituko dugula kontuan izateko, alegia.

2.3.Joshua a.fishmanen Hinbe proposamena

Joshua A. Fishmanek hizkuntza gutxituen berreskurapenerako proposamen interesgarri bat luzatzen du, RLS ingelesez eta euskaraz HINBE bezala ezagutzen dena. Ekarpen honen baitan interesgarriak izan daitezkeen hainbat pista jasotzen dira hizkuntza berreskurapenaren bidean Aretxabaletarako ere balio dezaketenak. Horregatik merezi du Fishmanen konstruktua ikerketa honetara ekartzea, azalpenak aztertzeke eta bere proposamenak aintzat hartzeke alegia. Dena den, ez da bakarra euskararen berreskurapena nola eman daitekeen proposamenak luzatzen, Txepetx bezala ezagutzen den Sanchez Carrionek ere badu bere ikuskera propioa, aurrerago papereratuko duguna.

Zentra gaitezen beraz, Xabier Erizek eta Mikel Zalbidek jasotzen duten HIZNET ikastaroko Hizkuntza gutxituen inguruko modulutik ateratako pasarte batzuen bueltan.

Jaso ditzagun interesa piztu diguten hainbat ideia:

Abiapuntu bezala, eta orain arteko idealekin apurtzaile datorrena ondoren jasotzen dena da. Fishmanen iritziz espero dezakegun mundu hoberena, euskara gaztelara elkarbiziko den egoera da, diglosi egoera alegia, eta euskara biziberritzeko plan guztiak egoera horretan kokatzea gomendatzen du eta ez utopikoa den beste egoera batean.

“Ahaztu dezagun hortaz, euskara hutsezko Euskal Herriaren egitasmoa, eta zentra gaitezen euskaldunen luze zabaleko elebitasun egonkorra garantiza dezakeen marku soziolinguistiko egokiena lortzen.”

Horregatik, egoera marku hori definitu eta irudikatzea gomendatzen digu euskaldunoi: euskara-erdararen konpartimentazioa egitea, luze-zabaleko funtzio-banaketa egonkorra garantizatuko duena. Horiek guztiak bilatu eta hezur mamitu behar ditugu euskaldunok eta erdaldunok. Erdal mundua onartu behar dugu euskaldunok, bizialdi osoan hortxe izango dugula jakin eta berari leku egiten ikasi, baina euskal munduari bere osoan, litekeen erarik beteenean eutsiz: gure biziaren zati garrantzitsuak euskaraz biziz, euskaraz sortzen eta seme-alabei euskaraz transmititzen.

Euskal kulturari eta kulturaren garrantziari ere jartzen dio arreta Fishmanek. Euskal kulturari, erdal munduarekin mutur-joka ibili gabe, edertasun kutsua eranstearen premia azpimarratzen du. Euskara eta bere kultura gizarteko ordainsarien markoan ongi txertatzea behar- beharrezkoa duela belanez belan bizirik iraungo badu.

Hori da Fishmanen aholkua, mundu zabaleko hiztun herri txiki, ahul, galtzeko zorian gaudenoi euskaraz HINBE izenez ezagutzen den bere proposamenean, hizkuntza indarberritzeko proposamenean.

Gero eta larriago dabilen hizkuntza ahulak hiztun gehiago izan ditzala, eta hiztun horiek gero eta jardungune, harreman sare eta situazio ugariagoetan egin dezatela beren hizkuntza ahul horretan da HINBEren jomuga, neurri handi batean.

Fishmanek dio garrantzitsua dela oso, hizkuntza indarberritzeko orduan, lekuan lekuko egoera zehatz mehatz aztertzea, kasuan kasuko irtenbideak proposatu ahal izateko,itsu-itsuan neurri orokorrak hartu beharrean. Azterketa hori egiteko tresna eskaintzen digu, Belaunaldien Arteko Etenaren neurria bezala ezagutzen den eskala alegia. Euskaraz BAEN eskala bezala ezagutzen dena.

BAENek 9 maila ditu eta maila bakoitzean hizkuntza gutxituak jasandako lurrikara maila adierazten da. Fishmanek dio Euskararen etorkizuna BAEN eskalako 6. 5.eta 4, urratsean jokatzeko dela. Gero eta erdal itsasoan murgilduago bizi dira 6. mailako BAEN honetan kokatzen diren komunitateak, etxean, telebistak eta gainerakoek eta euskal-erdal ezkontzako bikoteek gero eta ahulduago daukate euskal giroa. Aiton amonek, gurasoek eta seme-alabek euskaraz dakite baina etxean edo auzoan lagunarte hurbilean eta kale bizitzan gero eta sarriago, batez ere gurasoek eta gazteek, erderaz egiten dute. Seme alabekin dihardutenean ere erdera ari da euskarari lekua jaten.

Horregatik dio testuingu honetan, jokatzeko dela beste inon baino gordinago euskararen biziraupena. Aretxabaleta BAEN eskalako 6. mailan kokatzen dela esango genuke. BAEN eskala honetan dauden herriei ondoko langintza lutzatzen die: **euskarazko gizarte hurbilari eutsi eta ahal bada , euskal arnaguneak sortzea.**

Fishmanen iritziz BAEN eskalaren 6. mailako lurrikara jasan duen hiztun herria ezin du eskolak, berak bakarrik onik atera. Erderazko mintzajardunetik euskarazkora pasa behar dugu belaunaldi

gaztea, edo oraindik euskaraz ari bada jardunbide horri eutsi behar zaio, dio firme. Eginkizun hori ezin dugu irakaslearen esku utzi.

Euskararen egungo auzia 6.mailan, 5.mailan, 4.mailan eta 3ean dagoela dio. Gaztejende euskalduna, lagunartean eta kalean euskaraz egiteko benetako aukerabidea izan dezakeen belaunaldia zaintzeko gomendioa luzatzen digu gurasoek bultzatua eta eskolak bidelagun.

“Eskolak ondo daude, irratia telebista ere bai, berdin egunkari-aldizkariak... Hori dena oso ondo dago, baina ezer gutxi egin dezakete euskara indarberritzeko. Ahulak dira neurri horiek, aldezturik eta auzoko, lagunarteko eta kale-giro hurbileko euskal jarduerak zaindu, indartu, babestu, oinarritu eta finkatzeko ez bada.”

“Euskaldun jendea demografikoki nagusi edota gutxienez masa batetik gorako kopuruan izango den herri-herririk, auzoak eta biziguneak saia zaitezte euskaldun mantentzen. Horrek bermatuko baitu hurrengo belaunaldiak euskalduntzea”

Zenbat eta euskarazko arnasguneak ugariagoak eta aktiboago izan, orduan eta errazago izango da euskaraz erdipurdika moldatzen diren horiek beren hizkuntza gaitasuna sendotzea eta zabaltzea.

Familia barruko taktikak eta estrategiak eratu, euskarari eusteko eta ahal den neurrian euskaraz ez dakiten edo gutxi dakiten kideak euskal gorpilera hurbiltzeko. Neska mutilak euskaraz hobeto egin dezaten, hitz etorri hobea izan dezaten...lortzeko neurriak sartzen dira atal honetan. Baita etxe barruko euskal giroa sortu eta indartzekoak ere. Familiarekin batera lehentasun osoa eman behar diogu gure auzoari edo herriari, eguneroko gure bizimoduaren zati handi bat bere baitan biltzen duen locus natural horri.

Hauek dira bere proposamen sakonetik ateratako zertzeladak, eskuartean dugun lanarekin zerikusia daukatenak eta ezinbestean familia barruko eta gertuko hizkuntza ohiturak nolakoak diren aztertzerako eramango gaituztenak.

2.4. Jose maria sanchez carrion. eremu sinbolikoaren nuklearizazioa

Euskal Herrian Jose Maria Sanchez Carrionek, Txepetx bezala ezagutzen denak euskara eta erderaren bueltan etorkizun linguistiko orekatua irudikatzen duen teoria garatu zuen. Hizkuntzaren zentzu soziala, psikologikoa eta etikoa uztartzen dituen eredua proposatzen du bere lanean. Hizkuntzaren garapen osoaz ari da Txepetx eta osotasunaz ari denean horrela definitzen du: hizkuntza osoa funtzio guztiak-naturalak eta kulturalak biltzen dituen da.

Bere iritziz, hizkuntza bat oinarritzeko 3 faktore nagusiengatik ikasten da: motibazioa, ezagutza eta erabilera.

Hiru faktoreak elkar lotuta daude eta zirkuito bat osatzen dute. Faktore horietako bakoitza naturala ala kulturala izan daiteke. Eta horren arabera, bi ibilbide edo ikasketa irudikatzen dira: ikasketa primarioa edo ikasketa sekundarioa.

Ikasketa primarioa haurtzaroan ematen dena da, non erabilera, ezagutza eta motibazioa berezkoak diren. Ikasketa sekundarioa, haurtzarotik gorakoa da, non motibazioa, ezagutza eta erabilera kulturalak diren.

Aretxabaletako nerabeen artean, bi ikasketa mota hauek dituztenak ditugu, eta herriko ezagutza maila ere altua dela esan dezakegu. Horregatik, interesgarria da eremu sinbolikoaren nuklearizazioaren inguruan esaten dituenak Txepetxek, proposamen gisa hiztun taldea indartzeko.

2011an bi faktore gehitu zizkien Txepetxek: mugimendua eta giza gogo. Mugimendua da bi ibilbideak eta ikasketa motak primarioa eta sekundarioa lotzen dituen eta hizkuntzei bizitza ematen diena. Funtzionamendu naturalak ikasketa kulturala berrindartzen du eta funtzionamendu kulturalak naturaltasuna berrindartzen du. Giza gogoak hiztunak sortzen ditu eta hiztunek kontzientzia hartzen du.

Hizkuntza komunitatea bost taldez osatua dago. Hona hemen bere gizartearen mailaketa:

AB: jatorrizko hiztun kulturalizatuak

BA: heldu berkokatuak

A: jatorrizko hiztun primarioak

B: ikasten ari diren heldu eta gazteak, naturaltasunik lortu ez dutenak

O: hizkuntza ez dakitenak

Pertsona gehienek hizkuntzaren bi ikasketa prozesuak betetzen dituzte egoera normalizatuetan: primarioa bizitzaren lehenengo urteetan eta sekundarioa edo kulturala hezkuntza sisteman. Txepetxen azalpenei jarraituz, hizkuntza baten hiztun osoa izango da hizkuntzaren pertzepzio bikoitza duena. AB bezala ezagutzen direnak.

Gainerakoak desorekatuak eta osatu gabeak dira. Gune sinbolikoa AB+BA taldeek osatzen dute. Hizkuntza komunitate artikulatua AB+BA erdigunean duena da. Horren ordez O egoten bada artikulazioa puskatu egiten da eta komunitatea hutsune baten inguruan geratzen da.

Gune sinbolikoa hizkuntza horren bidez adierazten den mundu ikuskerakin lotzen da. Hizkuntzaren iraupen eta galtze prozesuen azalpen sakona esparru funtzioen eta gune sinbolikoaren ideietan oinarrituta egiten du Txepetxek. Era honetan, hizkuntzaren ordezkapena, funtzioen ordezkapena dela ulertzen du eta hizkuntzaren iraupena noski, eginkizunei eustea.

Hizkuntzaren iraupena, gune sinbolikoaren kalitate, indar eta gainerako hiztunengan eragiteko ahalmenaren arabera izango da, horregatik normalizazioaren gakoa gune sinbolikoa osatzean dago.

Un futuro para nuestro pasado lanean, ordezkapenaren eta normalizazioaren urrats nagusiak laburtu eta gertatzen diren hurrenkeran jasotzen ditu. Bere teoriaren arabera, bi hizkuntzen ukipen egoera gertatu ondoren ordezkapenera daramaten mugarriak ondokoak dira: hizkuntza menderatuen funtzioen galera, hizkuntza menderatzailearen alde bakarreko elebakartasuna, gutxiagotasun konplexua, hizkuntza komunitatearen desegituraketa eta azkenik bere bidea jorratzea debekatzen dion legezko diskriminazioa.

Ingurumaria horretan, normalizazio bidea haustura tentsioa gertatzen denean hasten da. Gune sinbolikoaren nuklearizazioa, komunitatearen trinkotzea, legedia aldaraztea, hizkuntzaren eginkizunen berrirabaztea eta gutxiagotasun konplexuaren desegitea. Honek hizkuntza garatu eta hiztunen behar berriak asetzen joateko bidea irekitzen du eta dinamika berri bat hasten du.

Haustura tentsiotik normalizazioan aurrera joateko gakoa hizkuntzaren aldeko diskurtso berri bat zabaltzean dago. Horren inguruan gertatuko da hiztun osoen gune sinbolikoaren nuklearizazioa eta komunitatearen artikulazioa.

Normalizazioaren helburua euskara gaitasuna optimizatzea da. Hori lortzeko bitartekoak dira motibazioa, ezagutza eta erabilpena areagotzea. Norbanako mailan esaterako, nortasun euskalduna osatzean gauzatzen da. A euskaldunak AB bihurtzea, b erdaldunak euskararen aldeko jarrera garatzea eta c bi multzo edo prozesu hauek orekatzea eta berdintzea, hots, kanpoko hizkuntza ikasten duten euskaldunak eta euskara ikasten duten beste hizkuntzetako hiztunak.

Normalizazioa arrakastatsua eta sendoa nahi bada, erakargarritasun berria duten proposamenak egin behar dira, zertarako gehiago beharko ditu hizkuntzak, bestela hiztunek ahalegina egin ondoren mundu hutsal bat aurkituko dute hizkuntza bizi bat aurkitu beharrean. Erakargarritasun hori berdintasuna egiatan defendatzetik eta ohiko ereduak kualitatiboki gaunditzetik etorriko litzateke.

Normalizazioa hizkuntza komunitatea trinkotuz lortzen bada, urrats erabakigarria gune sinbolikoaren nuklearizazioa da.

AB eta BA taldekoak hasten dira nuklearizazio prozesu honetan. Garrantzitsuena alde kualitatiboa da eta behin hori lortuta alde kuantitatiboa lortzen da. Abiapuntua norbanakoan dago, kontzientzia maila nahikoa duten hiztunetan, eta norbanako horiek ulertzea euskararen normalizazioa ezinbestean berdintasunaren diskurtsoarekin lotuta dagoela eta beren borroka dela herri, kultura eta hizkuntza guztiek bizitzeko duten eskubidea defendatzea.

Beste baldintza bat: nahia da. Pertsonengandik komunitatera eta komunitatetik pertsonengana doana. Izateko nahia, motibazioarekin lotuta dago, nahikotasun maila bat erdietsiz gero, hizkuntza birraktibazioa eragiten duena.

Normalizazioa hasten da hizkuntza komunitateak jadanik artikulatuta balego bezala funtzionatzen duenean. Eta lehen urratsa, gune sinbolikoaren nuklearizazioa da.

Artikulatzea herrietatik abiatuta egingo da: AB/Baren trinkotze prozesuaren lehen guneak herriak izango dira eta horiek bermatuta etorriko da nazio linguistiko osoaren artikulazioa.

3. METODOLOGIA

Metodologia hautatzeko unean ikerketaren helburuari erreparatzea ezinbestekoa da, helburuak esango baitigu ze metodologia behar dugun, zertarako eta zergatik. Jaso dezagun beraz, zeren atzetik gabiltzan ikerketa honetan.

Helburua

Aretxabaletako nerabeen euskara gaitasuna, euskara erabilera eta euskararekiko duten jarrera aztertzea da lan honen misioa. Aterki horren babesean ondoko alderdi nagusiak jaso nahi dira.

1.- Aretxabaletako nerabeen euskara gaitasun erlatiboaren inguruko diagnosia. Euskara gaitasuna aztertzea garrantzitsua da, batez ere, gaitasunean hutsuneak non dituzten identifikatu nahi dugulako, zehatzago esanda, beste ikerketa batzuetan jasotako hutsuneak, Aretxabaletan ere ematen diren ala ez jakin nahi dugulako.

2.- Aretxabaletako 12-16 urte bitarteko nerabeen harreman sareetan dituzten hizkuntza ohiturak aztertzea.

Etxean, eskolan, eskolaz kanpoko ekintzetan eta kalean norekin egiten duten euskaraz eta norekin gazteleraz, edo bietan jasotzea. Garrantzitsua da harreman sareetan ematen diren hizkuntza ohituren berri jakitea, are gehiago, hizkuntza ohitura horiek zergatik ematen diren ere identifikatzea, hizkuntza ohituren aldaketa sustatu nahi badugu nondik hasi behar dugun jakin ahal izateko.

3.- Aretxabaletako nerabeen kultur kontsumo ohiturak aztertzea.

Zein hizkuntzetan irakurtzen duten, musika zein hizkuntzatan entzuten duten, internet zein hizkuntzetan erabiltzen duten eta telebista zein hizkuntzatan ikusten duten eta zergatik jakitzea nahi dugu. Gure ustez ohitura hauek aztertzea oso garrantzitsua da gure egunerokoan pisu handia dutelako. Komunikabideek, musikak, internetek... gazteen egunerokoan ikasketekin, harremanekin eta gozamenarekin lotura dute azken finean. Esparru zabal hauetan aurkitzen dituzte euren erreferentzia asko eta asko.

Laburbildurik, kultur elementuak ze hizkuntzatzen gozatzen dituzten eta zergatik ez dituzten beste hizkuntza batean gozatzen jakin nahi dugu.

4.- Nerabeek Aretxabaletako euskararen egoeraren inguruan daukaten pertzepzioa nolakoa den aztertzea.

Herri mailako erabileraren inguruko euren ikuskera interesatzen zaigu, alegia, euren ustez zein egoera duen euskarak Aretxabaletan, Debagoienan eta Euskal Herrian. Eta horrekin lotuta euskararekiko ze jarrera duten. Lan honen ondotik euskararen erabilera sustatu nahi badugu, ezinbestean euren prestutasuna aldekoa den jakin beharko dugu bestela ahalegin guztiak hutsalak izango baitira.

Helburuen ondotik, hipotesi batzuk papereratzen ausartuko gara jarraian. Hona hemen gure ustez ikerketa honetan argitu beharreko hipotesien formulazioa:

Ikerketaren Hipotesiak

1.- Aretxabaletako adin tarte honetako gaztetxoek harreman sareetan (lagun artean) gazteleraz asko hitz egiten dela iruditzen zaigu.

Ezagutza maila oso altua den arren, harreman sareetan gaztelerak pisu handia duela esango genuke. Horregatik, beti euskaraz nerabeen erdiak baino gutxiagok egiten duela esatera ausartzen gara.

2.- Nerabezaroan, alde handia dago urtetik urtera.

12 urtekoak, hau da, DBH 1eko ikasleek gehiago erabiltzen dute euskara gaztelera baino eta urteak aurrera joan ahala gazteleraren erabilera areagotu egiten dela da gure hipotesia.

3.- Aretxabaletako nerabeek, kultur kontsumo erdalduna egiten dute.

Telebista gazteleraz ikusten dute, internet gazteleraz kontsumitzen dute eta musika ere gazteleraz euskaraz baino askoz gehiago kontsumitzen dutela esango nuke. Irratia izango da euskaraz gehien kontsumitzen duten komunikabidea.

4.- Nerabeek euskararen aldeko jarrera positiboa daukate.

Behin ikerketa honekin zer argitu nahi dugun jakinda metodologia kuantitatiboa eta metodologia kualitatiboa erabiltzearen aldeko apustua egingo dugu, bi metodologia hauek eskaintzen dituzten teknikak erabiliko ditugu, biak ala biak behar-beharrezkoak ditugulako ikerketaren helburuari erantzuteko.

Metodologia kuantitatiboa.

Metodologia kuantitaboa egokia eta baliagarria da errealitate sozialaren zenbait aspektu lantzeko. Baliagarria eta egokia da hurbilpen hau errealitatearen ageriko planoaz aztertu nahi denean, zeinetan gertaerak behatu, erregistratu eta neurtu daitezkeen. Baina hurbilpen hau desegokia eta baliogabekoa da diskurtsoaren mailari heldu nahi dioenean ikerketak; gizarte bateko ideologia eta kultura sortu eta eraldatzen den planora iritsi nahi denean.

Inkesta: populazio bateko pertsona edo erakundeei egin beharreko galdera multzoa da, eskuarki aurrez behar bezala egituratua eta era arautu batez, galdera hauek asmatu, egituratu eta burutzeko metodologiarekin batera.

Inkestak, galde sortaz gainera, beste zeregin eta elementu batzuk ere barne hartzen ditu, hala nola, populazioaren definizioa, lagina osatu eta aukeratzeko metodologia eta erantzunen bilketa eta tratamendua.

Inkestak arruntak dira soziologian, ekonomian, merkatu ikerketan eta osasungintzan, esaterako; helburua alor horietako alderdi jakin bat, zabalagoa edo murriztagoa, aztertzea izan ohi da.

Ikergaiaren unibertsoa: Aretxabaletan, 235 nerabe daude adin tarte horretan. Bi ikastetxetan banatuta daude, Almen ikastetxean eta Kurtzebarri BHI ikastetxean. Inkesta, ikastetxe hauetako ikasle guztiei pasako diegu, aste jakin bateko edozein egunetan. Horregatik, egon daitezkeen errore margena txikia izango da, egun horretan ikastetxera hurbilduko ez diren nerabeena, alegia.

Galdera sortak, galdera itxiak eta galdera irekiak izango ditu. Orohar, hizkuntza gaitasuna, hizkuntza ohiturak harreman sareetan eta euskararekiko duten atxekimendua aztertzeko zuzendurikoak izango dira.

Metodologia kualitatiboa

Behin inkestak emandako emaitzak aztertu ondoren, metodologia kualitatiboaz baliatuko gara gure gaztetxoaren erantzunak ulertzeko. Metodologia kuantitatiboak ez bezala, metodologia kualitatiboak gai nahasiak eta difusoak aztertzea ahalbideratzen du, hala nola, motibazioak, jarrerak, gure ikergaiarentzat ezinbestekoak direnak. Erabiliko dugun teknika, eztabaida taldea izango da.

Eztabaida taldea: Jesus Ibañezen (Ibañez: 1979) definizioa hartu dugu eredu. Eztabaida taldea, erreferentzia bezala hartzen den makrotaldearen mikrotaldea da. Eztabaida taldearekin analisirako lehengai izango diren diskurtsoen ekoizpena bilatzen da.

Eztabaida taldea errealitatean oinarritzen da, lan bat burutu behar du ; lan hau hitz egitea da, bere hizketa aurrera eraman behar du. Eztabaida taldea, talde simulatu eta manipulagarria da. Talde simulatua dela diogu taldekideak bertan daudenean osatzen delako taldea, hitz egiten duten bitartean taldea talde da, taldea ez zen talde bildu aurretik eta ez du talde iraungo

taldekideak banatzen direnean. Manipulagarria dela diogu, ikertzaileak dinamizatzen duelako taldea ez dutelako posizio berdina, nahiz eta taldearen kontrol osoa ez izan eta gidoia irekia izan.

Aretxabaletan, DBH4ko ikasleak aukeratu ditugu eztabaida taldea burutzeko. Eztabaida talde bakarra egitearen hautua egin dugu batez ere ikerketaren iraupenak eta baliabideek ez digutelako aukera gehiago ematen. Ikerketa, data baterako amaitu behar da eta data horretarako amaitzeko ezinezkoa da eztabaida talde gehiago egitea.

Horregatik, talde homogeneo bat aukeratu dugu:

Honen osaera egiterako 2 aldagai hartu ditugu kontuan: adina eta euskararen aldeko jarrera.

Adina: DBH4ko ikasleak nagusienak direnez, etapa honetako bizipenak dituzte. Ikasturte denak pasa dituzte eta nerabezaroaren inguruko ikuskera osoa erakutsi ahal digute. Horretaz gain, arrazoitzeko heldutasun maila altuena eta diskurtsoa egituratuena izango dutela uste dugulako aukeratu ditugu.

Euskararen aldeko jarrera: batzuetan euskaraz hitz egiten duten eta euskararekiko jarrera ona duten nerabeak dira. Diskurtso honetatik identifikatu ahalko ditugu talde honek euskaraz gehiago egiteko dituzten beharrak. Euskaraz batzuetan egiten dutenek eta euskararen aldeko jarrera dutenek euskaraganatzeko aukera izan dezakegula uste dugu, eta horixe dugu erronka, gazte horiek daukaten beharrak identifikatzea ondoren erabileran eragin ahal izateko estrategien inguruan hausnartzea.

Ikerketaren kronograma:

IKERKETAREN URRATSAK	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA
Dokumentazioa irakurri eta datu bilketa						
Ikastetxeekin harremanetan jarri						
Inkesta pasatu						
Datuak prozesatu						
Eztabaida taldea. Prestatu						
Eztabaida taldea aurrera eramán						
Datuak prozesatu						

Ondorioak aztertu	
Ikerketa amaitu	

Ikerketako aldagai nagusiak

ADINA: marku teorikoan hainbat aipamen egin ditugu adinaren inguruan. Gure adin tartea haurtzarotik gaztearora bitartean kokatzen den transizioaldia bezala ezagutzen dena da. Nerabezaroan, lehen sozializaziotik bigarren sozializaziora pasatzen dira, mundu berri bat zabaltzen zaie ikasleei eta aldaketa asko bizi dituzten aroa da. Horrela adierazten dute Jokin Aiestaran, Jasone Cenoz eta Durk Gorter UPV/EHUko unibertsitatea Ikasleen hizkuntza-erabilera: gogoetak eta proposamenak Ikasleak Hiztun 2011ko ARRUE proiektua adituen iritzi azalpenak (Aiestaran, Cenoz, 2011:171)- Erabileran ez ezik, beste aldaketa ugari ere bizi dituzte gaztetxoek adin horietan: sozializazio-prozesua, nortasuna finkatzea, lagunen eragina gero eta handiagoa, gurasoekiko harreman aldaketa eta abar.

Beste hainbeste dio Iñaki Martinez de Lunak (Martinez de Luna 2011:132) ARRUE programako adituen iritzi artikuluan. LMH4n ikaslea DBH2n baino autonomoagoa dela gizarte baldintzekiko, eta horrek ikasleen hizkuntza-portarari eragiten diola. Bi adin-talde horien arteko erabileraren aldea soziolizazio-ingurugiro ezberdinen ondorioa izan daiteke. Hots, herriko egoera soziolinguistikoa eta etxeko erabileraren arabera mintzaldatzea ez dela hainbeste ematen.

HIZKUNTZA OHITURAK

Harreman sareetan zein hizkuntzatan hitz egiten duten aztertuko dugu gure ikerketan.

Etxea, eskola eta kalea dira gizakien hiru sozializazio espazio nagusienak. Josu Amezagak (2011:187) laugarren sozializazio espazio bat ere gehitzen du komunikabideak.

Etxea: lehen sozializazio gunea da, haurrak jaiotzetik jasotzen duen hizkuntza, ama hizkuntza alegia. Bizitza guztian eragin handia izango duena pertsonarengan, afektiboki bai komunitateko parte egingo duena, bai gizarteratzeko orduan eta baita mundua ikusteko moduan ere.

Ikastetxea: bigarren sozializazio esparrua dugu. Ikastetxean, irakasleekin, gainontzeko ikaskideekin zein hizkuntzatan harremanetan diren aztertuko dugu. Ikastetxean euskaraz ikasten dute, euskararen erreferentzia gunea da eta bertan ematen diren berdinen arteko harremanak eta ikasle irakasle arteko harremanak aztertuko dugu.

Kalea: Josu Amezagak (2011:185) Ikasleak hiztun, erabilitako definizioa hartuko dugu. Kaletzat, etxeak zein eskolak zuzenean barne hartzen ez dituzten testuinguruak hartzen ditu, beti ere 12-16 urte bitarteko testuinguruan. Gure kasuan, kalean lagun arteko harremanetan egiten duten hizkuntza erabileraz gain, eskolaz kanpoko ekintza jendetsuenetan zein hizkuntzetan jarduten

diren aztertuko dugu, eta hirugarrenik, teknologia berrien bitartez euren arteko komunikazioa zein hizkuntzatan burutzen duten ere bai.

KULTUR KONTSUMOA

Kultur Kontsumoaren baitan, telebista ikusi, irratia eta musika entzun, egunkaria irakurri eta internet zein hizkuntzatan kontsumitzen duten aztertuko dugu. Gizarte aldaketek, globalizazioak eta kultur aniztasuna hain gertu bizitzeak euskararen kultur kontsumoan eragina izan dute. Nekane Goikoetxeak (Goikoetxea 2011:246) Ikasleak Hitzun lanean dio, kausa horiek makro-egitura horiek kristalezko sabaia ezarri diotela euskararen erabilerari. Bere iritziz, gakoetako bat euskarak gizartean duen kapital sinbolikoa-pragmatikoan eragitea da. Horretarako kultur dimentsioari erreparatu behar zaio. Izan ere hizkuntza komunitateko kideek kulturaren premia baitugu. Zentzu horretan, eta behar bada indartzeko xedez, nerabeek euskaraz duten kontsumoa aztertuko dugu.


EUSKARAREKIKO JARRERA

Nerabeen erabileran aldaketa bat sustatu nahi badugu aldaketa hori emateko aurki ditzakegun indarrak eta aukerak aztertzea komenigarria da. Horra hor aldagai honen garrantzia, azterketak ematen digun erantzunaren baitan jakingo dugu lanerako aukerak ditugun ala ez.


3.1. Ikerketa kuantitatiboak eman dituen emaitzak

Hizkuntza gaitasuna


Lau galderen bitartez saiatu gara hizkuntza gaitasuna neurtzen.



Grafika honek adierazten duen bezala, Aretxabaletako nerabeek euskara gaitasun maila altua dutela uste dute eta hutsaren hurrengoak dira gaizki hitz egiten dutela uste dutenak. Ezin ezkuta dezakegu pozteko emaitzak direla, ondo eta oso ondo hitz egiten dutenak batuz gero, euskararen ezagutza %80 eta %90 bitartean kokatzen baita. Lau ikasturteak elkarren artean konparatzen baditugu, ezagutzari dagokionez behinik behin adinen artean ez dagoela alde esanguratsurik esan dezakegu.



Grafika honetan jasotzen denaren arabera, euskaraz pentsatzen dutela diotenak dira gehienak, “nahiko ados” eta “gutziz ados” erantzun dutenak batzen baditugu, zera ikus dezakegu: DBH1 eta DBH4 ikasleak direla galderarekin adostasun handiena adierazi dutenak.




Goiko grafikan jaso bezala, zein hizkuntzetan moldatzen zara hobeto galderaren erantzunetan, beste behin ere DBH1etik DBH2ra ematen da aldaketarik nabarmenena. Gaztelera beti hobeto moldatzen direnen artean zentra gaitzen, ia hirukoiztu egiten da bi maila hauen arteko aldea. Beste hainbeste gertatzen da euskaraz beti eta gehienetan euskaraz erantzuten dutenen artean, jeitsiera esanguratsuena bi ikasmila hauetan ematen da berriro ere.


Deigarri da, “gaztelera beti” hobeto moldatzen denik ez dagoela DBH4an.

Euskararen bilakaerari erreparatzen badiogu, “euskaraz beti” eta “gehienetan euskaraz” hobeto moldatzetik DBH1en, “euskaraz eta gaztelera antzera” moldatzen direnak gailentzen dira DBH4an, gaztelaniak indarra hartzen du eta DBH4an, bi hizkuntzetan antzera hitz egiten dutela esaten dutenean euskaraz beti hobeto moldatzen direnak 12 puntu jeisten dira DBH1ekoekin konparatuz. Dena den, batak ez du bestea kentzen. Adinean aurrera joan ahala prozesu naturala da gaztelera jakintza handiagoa izatea, gero eta harreman estuagoa baitute gaztelarekin. DBH4ko gazteak helduarora gerturatzen ari dira eta helduaroarekin zerikusia duen guztia, lan mundua, komunikabideak... gaztelarekin lotuta daude kasu gehienetan. Gaztelera euskaraz adinako gaitasuna izatea gizarte elebidun baten adierazgarri da, erronka, bieran gaitasuna izanda euskararen aldeko apostua egitean datza.

Horiek horrela, Iñaki Martínez de Lunak(2011:132) ARRUE proiektuaren ondorioen inguruan egiten duen hausnarketa batekin gatoz, hizkuntza sozializazioaren baitako funtzio edo dimentsioak euskararentzat egokiak bihurtzea dela gakoa, dioenean.



Grafika honetan jasotzen den datua kezkarria da. Euskaraz beti hitz egiten dutenen artean %21a da bakarrik haserretzeko euskaraz adierazteko gaitasuna dutenak. Haserrea botatzeko baliabide faltan daude gure gazteak. Hizkuntzez aldatzen dute. Xabi Paiak (2007:10) Larrun aldizkariako Zapiz barako atorra artikuluan oso ondo adierazten du ideia hau. Bere ustez euskaraz ez dago ganorazko biraorik. *“Ez dago min emateko karga semantikoa daukan hitz andanarik. Eta hori arazo bat da. Hizkuntza arrotzetan lehenbizi ikasi ohi diren hitz horiek euskaraz azkenak izango dira. Eta ez dago normalizazioarik biraorik gabe.”*



Haserraldiak bezala, txisteak eta graziak egiterakoan ere gaitasun falta somatzen dute nerabeek. Gaztelerako erregistrora jotzen dute agian eurena propio den hizkera baten faltan. Horrela adierazten du ere David Anautek (2007:18) larrun aldizkarian. Daviden iritziz, testuinguru soziolinguistikoa erabat euskalduna ez den lekuetan, gazteek 3 aukera dituztela dio: *lehendabizikoa, gazte kutsuari uko egin eta "ukitu berezirik" gabeko hizkera erabiltzea, adin-markarik gabea; bigarrena, erdaraz egitea, eta erdarak horretarako eskaintzen dion "gazte-hizkera" erabiltzea; eta hirugarrena, bere euskarazko jardunari "gazte-ukitua" ematea.*


Gazte hizkera sor lezaketen erabilera indartsuko gune urbano eta erreferentzialak beharko lituzke euskarak, hizkera hori modu naturalean eta ez-arautuan hedatzeko gaitasuna edo indarra izango luketenak. Euskarak hori daukanean izango du gazte hizkera propio eta naturala.

Arlo honetan erronka handia daukagula ikusten da. Gazte hizkera informala sustatzeko premia dagoela agerian geratu da, bai behinik behin Aretxabaletan. Horra hor agertzen zaigun lantzeko lehen erronka. Orain nork eta nola sustatu behar den aztertu beharko dugu, aurreragorako utziko dugu proposamena, ondorioekin borobiltzeko alegia.


Hizkuntza erabilera


Etxeko hizkuntza ohiturak, ikastetxeetan ematen diren hizkuntza ohiturak, eta kalean ematen diren hizkuntza ohituren inguruko erantzunetan jasotakoak aurkezten dira segidako grafiketan.

Amarekin zein hizkuntzan hitz egiten duzu




Aitarekin zein hizkuntzan hitz egiten duzu






Familia da lehen sozializazio espazioa eta bertan jasotzen da ama hizkuntza. 2011ko datu soziolinguistikoen arabera, guraso biak euskaldunak direnean, ume gehienek euskara jasotzen dute etxetik (%97 EAEn, %95 Nafarroan eta %87 iparraldean). Gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean gehienek jasotzen dute euskara, maila apalagoan (%71, %67 eta %56), haietatik gehienek erderarekin batera. Aretxabaletako nerabe erdien etxeetan hitz egiten da “euskaraz beti” edo “gehienean euskaraz”. Amarekin eta aitarekin hitz egiterakoan ez dago alde handirik, amarekin agian gehiago hitz egiteko joera dute. Gurasoen artean, euskaraz hitz egiten dutenak dira gutxiengoa, alde nabarmenez gainera. Horren aurrean, guraso biak “euskaraz ondo” eta “oso ondo” hitz egiten dutenak zenbat diren eta etxean zein hizkuntza erabiltzen duten aztertzea premiazkoa da.






Guztira, guraso biak “euskaraz ondo” edo “oso ondo” hitz egiten dutenak %35 dira. Hortik abiatuta zera esan dezakegu: goiko grafikan ikus daiteke guraso elebidunen artean gehienek euskaraz hitz egiten dutela etxean. Gutxi dira “gazteleraz gehienetan” edo “gazteleraz beti” egiten dutenak. Horrekin zera esan daiteke, guraso euskaldunak fidelak direla euskararekiko eta etxean erabiltzen dutela. Eta ez hori bakarrik, aurreko grafikei begiratu bat emanez gero, guraso elebakarrak dauden etxeetan, guraso elebidunek euren seme alabei euskaraz erakustez gain, eurekin ere erabiltzen dutela ondoriozta dezakegu.



Aitzitik, etxe barruan, euskaraz ematen diren elkarrizketa gehienak etxeko gazteen artekoak dira. Neba-arreben kasuan erdiek baino gehiagok egiten dute euskaraz beti edo gehienetan, baina

deigarriena da, neba-arreben artean,” gehienetan gazteleraz” eta “gazteleraz beti” hitz egiten dutenak, ia %43a direla. Portzentaia altua dela esan dezakegu.





Pasa gaitezen ikastetxeetara eta begira ditzagun goiko grafikek erakusten dizkiguten datuak. Hasteko, ARRUE programako emaitzekin bat datoz gure datuak, ikastetxea euskararen gotorleku dela esaten dugunean. Ikastetxea gotorleku eta irakaslea, nerabeek euskara gehien egiten duten pertsona da, harreman sare guztietatik gailentzen den figura, alegia.


Arrue Proiektuak emandako emaitzekin bat egingo dugu berriro ere, gela barruan euskararen erabilera jolas orduan baino altuagoa dela esaterakoan, dena den, aldea ez da oso handia. “Euskaraz beti” eta “gehienetan euskaraz” erantzuten dutenak batzen baditugu, jolas orduan lagunekin eta gela barruan gelakideekin antzeko portzentaiak ematen dituzte. DBH1ean jolas orduan %52ak egiten du euskaraz eta %56ak gelan. DBH2n %25ak egiten du euskaraz jolasorduan eta %31ak gelan.

DBH3an %41ak hitx egiten du euskaraz gela barruan eta %38ak jolasorduan eta DBH4n, %88ak gela barruan eta %67ak jolas orduan. Ikastetxeko hizkuntza erabilera neurtzen duten grafika hauetan beste behin ageri da DBH1eko eta DBH4ko ikasleak direla euskaraz gehien hitz egiten dutenak. Berriro ere mintzaldatzea DBH1 eta DBH2 ikasleen artean ematen dela esan behar dugu.

DBH3n, euskararen aldeko joera berreskuratu egiten da eta DBH4n nerabe batzuk euskarara itzultzen dira. Hori ikus daitekeen beste datu bat gazteleraren erabilera dugu. DBH1 eta DBH4ko gazteak dira “gehienetan gazteleraz” eta “gazteleraz beti” hitz egiten dutela erantzuten dutenen artean gutxienak.

Amaitzeko, gelako erabileraren eta jolasorduko erabileraren artean, gaztelerak gora egiten du jolasorduan baina maila apalean. Ondorioz zera esan dezakegu: Aretxabaletako testuinguru

soziolinguistikok euskararen presentzia handia dela eta eragina duela ikastetxeko euskararen erabileran. Zenbat eta euskaldunagoa izan herria eremu formal eta informalean ematen den aldea txikiagoa izango da, hori Aretxabaletan gertatzen da, horregatik, eskola barruko eta jolasorduko elkarriketen artean ez da alde nabarmenik ematen.



Hirugarren sozializazio espazioa dugu kalea. Kalea bezala, espazio librea, lagunartekoa, hezkuntza ez formaleko ekintza bideratuak eta aisialdiako espazioak batu ditugu.


Goiko grafikan gehien erabiltzen dituzten eskolaz kanpoko ekintzak batu ditugu. Bertan ikus daitekeenez Aretxabaletan eskolaz kanpoko ekintzetan euskaraz egiten da. Nerabeek emandako erantzunen arabera gasteleaz euskaraz baino gehiago, saskibaloian bakarrik egiten dela ikus dezakegu.

Horretaz gain, goiko grafikaren inguruan zera adierazi nahiko nuke: musika eskolan, kiroldegian eta futbolean, irakasleak, kirol hezitzaileak eta entrenatzaileak zuzentzen dutela ekintza batez ere, eta ekintza euskaraz bideratuz gero erabiltzaileen euskara erabilera altua izatea normala dela.

Gaztelekua, bestelakoa da. Gaztelekura joatea libre da, ez dute sartzeko izenik eman behar, nahi dutenean joan daitezke eta nahi duten orduan. Gaztelekuan nahi dutena egin dezakete, bertaratzen diren batzuk antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzen dute, beste batzuk, gehienak, soilik lagunekin egotera joaten dira, edota beste kuadrilla batzuekin egotera. Gaztelekuan, ekintza antolatuak eta antolatu gabeko uneak daude, antolatutakoak bertako hezitzaileek bideratzen dituzte, eta noski guztiak dira euskaraz. Horrekin zera esan nahi dugu,

gaztelekua harreman informalen gunea dela eta nerabeek emandako erantzunaren arabera gehienetan euskaraz egiten dute bertan.

Inkestetan, gaztelekuaren inguruko itema, 116 nerabek erantzun dute, datu horiek kontuan hartuta zera esan dezakegu, gaztelekua nerabeentzat erreferentzia leku bat izateaz gain, euskalduna dela.



Grafika honekin hainbat ondorio azalaratzen zaizkigu. Bat-batekoan zera datorkigu, beste gainontzeko grafiketan bezala, aldea DBH1etik DBH2ra ematen dela. Honen zergatia eztabaida taldean argitzen saiatuko gara, hipotesi bezala zera esan daiteke DBH1ekoak oraindik LHra begira daudela, haurtzarora alegia eta DBH2koak ostera, nagusiagoei begira daudela.

Grafika honek adierazten digun bigarren ondorioa da, Aretxabaletako nerabe gehienek euskaraz egiten dutela gehienetan. “Gazteleraz beti” egiten dutenak ere gehitzen doaz adinak aurrera egin ahala, bai behintzat DBH1, DBH2 eta DBH3 kasuan.


Euskaraz egunerokoan hobeto moldatzen direnak eta euskaraz eta gazteleraz antzera moldatzen direnak kontuan hartzen baditugu, eta grafika honekin konparatzen baditugu, nerabe gehiago dira kalean euskaraz hitz egiten dutenak.

Baieztapen hau egiteko beti euskaraz, gehienetan euskaraz eta antzera erantzunen batuketaz baliatu gara. Ondorioz, DBH1en esaterako, %87a moldatzen da hobeto edo antzera euskaraz eta kalean, %80ak hitz egiten du beti euskaraz, euskañolez, gehienetan euskaraz, eta euskaraz eta


gazteleraz antzera. DBH2ko ikasleen artean %59a moldatzen da hobeto euskaraz eta gehiago dira kalean euskaraz hitz egiten dutenak, %65a. Horrek zera esan nahi du, euskaraz hobeto moldatzen direnak, euskarara erakartzen dituztela gazteleraz hobeto moldatzen direnak. DBH3ko gaitasun portzentaia %63a da eta %67ak hitz egiten du euskaraz kalean. DBH4 mailan %83a hobeto edo antzera moldatzen da euskaraz eta %89ak egiten du euskaraz kalean.

Kalean gazteleraz beti edota gehienetan gazteleraz hitz egiten dutela erantzun dutenei erreparatzen badiegu esandakoa berresten da. DBH1eko ikasleen %22a moldatzen da gehienetan edo beti gazteleraz hobeto eta %20ak dio beti edo gehienetan egiten duela erderaz kalean. DBH2n, %39 moldatzen da hobeto gazteleraz eta %45ak hitz egiten du kalean gazteleraz, DBH3n %36a moldatzen da hobeto gazteleraz eta %33ak egiten du kalean beti edo gehienetan gazteleraz.


Amaitzeko DBH4n, %17ak esan du hobeto egiten duela gazteleraz eta %12ak bakarrik egiten du ia beti edo gehienetan gazteleraz kalean.




Ezezagunekin ere gehienetan euskaraz hitz egiteko joera dutela ageri da. Erantzun honek herriaren testuinguru soziolinguistikoarekin lotura duela esango nuke. Nerabeek ezezagun batengana euskaraz zuzentzen badira, euskaraz dakiela uste dutelako da. Gutxi dira gazteleraz zuzentzen direnak, eta hemen beste behin ere joera berdina errepikatzen da. Euskaraz gehien zuzentzen direnak DBH1ekoak eta DBH4koak dira eta gutxien DBH2koak.




Merkatariekin ere beste hainbeste gertatzen da. Euskarak du nerabe eta merkatarien artean hizkuntza pisurik altuena, gutxienak dira gazteleraz egiten dutenak herriko dendetan.





Teknologia berriak komunikatzeko erabiltzen dituztenean euskararen erabilerak behera egiten du. Honen zergatia hausnartzeko ezinbestean eztabaida taldeaz baliatuko gara eta bertan proposatuko dugu galdera. Izan ere, hizkuntza ohituretan erabateko aldaketa ematen dela ikusten da sare sozialak erabiltzen dituztenean.



Nerabeek kultura gazteleraz kontsumitzen dute batez ere. Irratia eta egunkaria dira euskaraz gehien kontsumitzen dituzten produktuak. Egunkariaren kasuan, neurtu ez badugu ere, guk uste dugu eskualdean Goienkariaren presentziak eta duen indarrak eragin duela grafikako datuetan.

Interesgarria da sozializazio prozesuan Josu Amezagak komunikabideei ematen dion garrantzia. Josu Amezaga (2011: 187). *“Komunikabideek motibazio, ezagutza zein erabileraren dimentsioetan lan egin dezakete. Lehenik hizkuntzaren inguruko iruditegia landuz: euskara hizkuntza bizi gisa aurkeztuz, euskaldunen erreferentzialtasuna biderkatuz eta abar.”*

“Ezagutzan dio, telebistak baduela zer irakatsi elkarrizketa informal arloan haur eta nerabeen beharretan. Hizkuntzaren aldaketarako tresna izan da telebista herrialde guztietan, estandarizaziorako, beste hizkuntza batzuk ikasteko etab. Telebistaz baliatzeko proposamena egiten du ezagutza esparruan ematen diren hutsune horiei kasu egiteko.”


“Oso kontuan hartu behar da komunikazio moduetan gertatzen diren aldaketak. Gazteak eta nerabeak dira gehien murgiltzen ari direnak, horregatik sortzen ari diren egoera berriek zein aukera eskaintzen duten hausnartu eta bertan hizkuntza politikatik nola eragin asmatu beharko da.”



Euskararekiko jarrera

Euskararen egoeraren inguruan nerabeek duten pertzepzioa jakin nahi dugu. Zein ikuskera duten eta ze garrantzi ematen dioten euskarari alegia.


Aretxabaletako nerabeek, euskararen egoera ona eta erdipurdikoa dela ikusten dute. Debagoienean euskarak Euskal Herrian baino egoera hobea bizi duela irizten diote.

Aretxabaletako nerabeei orohar euskararen egoera interesatzen zaiela ikus dezakegu. Inkestatuen %65a kezkatzen du euskararen egoerak. Are gehiago %73ak dio euskaraz gehiago hitz egitea gustatuko litzaiokeela, eta herrian %63ari ere gehiago hitz egitea gustatuko litzaiokeela adierazi dute. Horregatik ondoko baieztapena egin dezakegu: nerabeek euskararen aldeko jarrera ona eta euskararekiko atxekimendua dutela.







Kezkatzen zaitu euskararen egoera



Nahiko zenuke zuk euskaraz gehiago egitea





Amaitzeko segidan ageri diren bi galdera ireki gehitu genion gure inkestari.

1.- Herrian euskararen erabilera bultzatzeko beharra dagoela uste duzu? Zergatik?

Erantzunetatik orohar ondorio hauek atera ditzakegu:

1.- Aretxabaletako nerabeek duten pertzepzioa da herrian gutxi hitz egiten dela euskaraz. Horren adierazgarri erantzunetan maizen errepikatzen diren adibide batzuk:

Gero eta gutxiago hitz egiten delako, jendeak ez duelako euskaraz egiten, dakien jendeak gutxi erabiltzen duelako, gazteek ia ez dutelako hitz egiten, aiton amonek eta haurrek bakarrik hitz egiten dutelako, desagertu egingo delako, gero eta jende gutxiagok hitz egiten duelako.

2.- Euskararekiko atxekimendu eta ardura afektiboa dutela adierazten dute euren erantzunetan:

Bestela galdu egingo delako, gure hizkuntza delako, gure hizkuntza ez galtzeko, galzorian dagoelako eta lagundu behar zaiolako....

3.- Euskararekiko atxekimendua ageri dutenak identitate eta komunitate ikuspuntu batetik erantzundakoak:

Euskal Herrian bizi garelako, jendeak ez duelako erabiltzen, gurea delako, euskaldunontzat garrantzitsua delako, Euskal Herrian gaudelako eta euskaraz hitz egin behar dugulako, euskarak egiten duelako Euskal Herria, gu euskaldunak garelako eta gure herria delako.

4.- Aretxabaletan euskaraz gehiago hitz egin nahi ez dutenek ere hainbat erantzun eman dituzte, gutxienak diren arren hona hemen jaso ditugunak:

Aspertuta nagoelako beti txapa berdina, gaztelera gustatzen zaidalako, euskara ez zaidalako gustatzen...

2.-Zer egin beharko litzateke herrian euskara gehiago erabiltzeko?

Oso erantzun gutxi jaso dira, gehienek ez dakit edo ez dute erantzun. Hona hemen erantzun dutenen proposamenak:

Gehiago hitz egin, lagunen artean euskaraz ondo ez dakitenei euskaraz egin, gehiago erabil, dendetan erabili...

Erabileran ikusten dute eginbeharrekoa gehienek. Norberak gehiago egin behar duela.

Bestelakoetan, motibazio kanpainak egin behar direla jaso dugu, baita euskara bultzatzeko ekintzak.

Amaitzeko, telebista kateak euskaraz berritzea ere proposatu duenik badago.

3.2. Ikerketa kualitatiboak eman dituen emaitzak

Eztabaida taldeari sarrera emateko, Aretxabaletan euskarak bizi duen egoeraren inguruan hitz egiten hasi dira. Aretxabaletan euren ustez zein adin taldek hitz egiten duen gehien euskaraz, zeintzuk gutxien, euren iritzia emateko eskatu diegu.

Hariari jarraituz, euskararekin duten harremanari eta horren bilakaerari buruz galdetu diegu. Hau da, nola hitz egiten zuten LH ikasten zebiltzala, eta gaztelara gerturatzeko transizioa noiz eman zuten eta zergatik eman zuten ere hausnartzen aritu gara.

Euskararen gaitasunaren gainean, datuak mahaigaineratu eta haserretzerakoan eta adar jotzerakoan gaztelara zergatik jotzen duten galdetu diegu. Kultur kontsumoaz ere gogoeta egin dugu, inkestek eman dutena azaldu ostean arrazoiak sakontzen aritu dira taldekideak. Amaitzeko, euskararen erabilera bultzatzeko pare bat proposamen bota dituzte.

Hona hemen jasotako emaitzak, gutxigora behera mahainguruan hitz egindako gaien ordena kontuan hartuta:

1.- Aretxabaletako egoeraren gaineko pertzepzioa.

Euren iritziz, Aretxabaletan euskaraz gehien gazteek eta zaharrek egiten dute. Haurrek ere sarritan egiten dutela esaten dute baina haurren artean gaztelaraz gero eta gehiago entzuten dutela aipatu dute. Gaur egun gurasoak haurrekin gaztelaraz aritzen direla behin baino

gehiagotan esan dute eta hori lehen, beraiek haurrak zirela ez zela gertatzen azpimarratu dute. Hona hemen hori adieraziz jasotako hainbat pasarte:

“Gurasuek umiei gero eta gehixau itxen dotzie erderaz, eta umiek lehen gure garaixen ez baina oin gero eta gehixau itten daue erderaz”

“Umiek itxen daue euskaraz eskolan, gero kanpuen askok erderaz itxen dauie”

Dena den, bat etorri dira gazteleraz gehien egiten dutenak, nerabeak eta 35-50 urte bitartekoak direla esaterakoan, gurasoak alegia.

“Gutxien guk itxen dou”

“Bai, lehenengo guk eta gero berrogeita piku edo berrogeita hamapiku urtekuek”

“Nik uste dot 35-50 urtekuak gutxi itxen dauiera euskaraz, ze jende asko kanpokue da eta erderaz itxeko joeria daukie”

Pasarte berean, galdetu ez arren, etorkinen gaia ere irten da. Etorkin askok euskaraz hitz egiten dutela esan du batek eta gainontzekoak bat etorri dira esandakoarekin. Interesgarria iruditu zaigu eta horregatik papereratu dugu.

“ Gaur egun kanpotik datozenak gehixau hitz egiten dabe euskaraz, ze ni Urbaltzen egoten nazenien onduan daz marrokixek eta, eta asko entzuten da euskerie. Gogo gehixau jarten dauiera uste dot”

Euskaraz 65 urtetik gorakoek eta gazte askok, 18-24 urtekoak euskaraz egiten dutela uste dute.

“Nik uste dot 18tik-30era bastante itxen dauiera euskaraz”.

Nerabezaroan zentratu garenean, DBH1etik DBH4ko bilakaeraren inguruan irakurketa desberdinak egon dira, batzuk pertsonen arabera dela esan dute, pertsona bakoitzaren arabera, baina horrekin denak ez dira ados jarri. Aitzitik, ondoren jasotzen diren lau ideien bueltan ados jarri dira:

“Umie nintzenien nik ez nekixen erderaz. Aldaketie DBHra pasatzerakuen emuten dala uste dot. Nire ustez Eskoitzatik etorten zirenak euskaraz itxen zauen sin mas, eta horregaittik itxen zaiuen erderaz”“Gero, eurek ere euskaraz gehixau ikasten dauie eta gehixau eitten daue euskaraz”

“.....Eskoitzakuek ohiketan die euskaraz eitten eta aldaketan dozu, eta hasten zare eurekin euskaraz gehixau eitten”

“DBH1ien, kurtzebarri LH-tik etortzen zare eta euskaraz eitten dozu baina gero, Eskoitzakuekin juntetan zare eta eskoitzakuak gutxiu dakixe euskaraz eta aldaketan dozu eta erderaz berbetan hasten zare” Gero, kontzientzientziau itxen zare eta DBH3n-edo zazenien gehixau eitten dozu euskaraz barriro be”

“Nagusixe zazela pentsetan dozulako hasten zare erderaz”

“Erderaz eitten dozu ze holan más malote zare, por hacer el malote, baciletan eta holan”

“Malotismo hori da zeatxik baziliak erderaz daz, nahi badozu norbaitxekin sartu, ze malotiak ba sartu itxen diaz jendiakin eta holan. Ba... hitz egiten daue erderaz... .”

“Ohitura kontue da, zu pertsona batzuekin erderaz eitten ohitura bazare beti erderaz eitten dozu”

Hona hemen ideia hauen zerrendatzea: batetik hizkuntza aldaketa egoera berri batekin lotzen da, LHtik DBHra igaro eta jende berria, lagun berriak egiten dira, asko gazteleraz hitz egiten dutenak dira. Horrekin batera, nerabeek euren burua nagusitzat dute eta horregatik hasten dira nagusien ohiturak hartzen. Nerabezaroan komunikatzeko modua ere aldatu egiten da, bazilatzerara pasatzen dira adarra jotzetik, eta horrek mintzaldatzea dakar. Amaitzeko, desobedientzia jarrera bat da, nagusiek esaten dietenari kontra egiteko. Helduek euskaraz egiteko esaten badiete beraiek gazteleraz egiten dutela.

“Derrigorrezkoa da euskaraz eittia, ba horrekin ez dozu eitten”

“Euskerie lehen egon zan prohibitxuta eta horregatik itxen zan, oin onartuta dau eta horrek eramaten dau gazteleraz eittia. ”

2.- Haserreak eta adar jotzeak gazteleraz egiten dituzte.

“ Malotismo” gaiarekin lotuta, horren inguruan hausnartzen ere ibili gara, euskaraz adarra jotzeko edo haserretzeko nola hitz egiten duten aztertzerara eraman gaitu elkarrizketak. Berehala erantzun dute, aho batez, haserretzeko euskaraz ez dagoela indar handia duen hitzik. Euskaraz norbait iraintzeko hitz indartsurik ez dagoela, barre egiten dizuetela euskaraz irainduz gero. Euretako batek euskara hizkuntza lasaia dela ere esan du, biraoak botatzeko ez duela indarrik eta gainontzekoak bat etorri dira. Hori bai, haserretzerakoan, etxean adibidez, euskaraz haserretzen dira eta etxean biraorik ez dituzte esaten, baina kalean, onartu dute, errezagoa irteten zaiela gazteleraz euskaraz baino,are gehiago, irainak eta biraoak euskaraz botatzen badiutuzte barre egiten dietela ere aipatu du norbaitek. Berdin adarra jotzerako orduan. Hona hemen pasarte interesgarri batzuk:

“...eske esaten dozu, imaginau kaikua eta itxen dotzue barre, edo txotxolo..”

Euretako batek beste adibide bat ere aipatu du. Oñatin esaterako, dena egiten dute euskaraz, eta zergatia galdetzerakoan, ohitura kontua dela esan dute. Oñatin Aretxabaletan baino euskaldunagoak direlako.

“ Oñatin denek itxen daue euskaraz, bueno jakin igual guk ere badakigu baina ez daukou adibidez ostia esateko beste modu batian ohitxurarik. Eztou esango ba mekatxiporreta, ezta? Danak deskojonau itxen diez.... gainera Oñatin Atxabaltan baino euskaldunauak diez”

Eta Aretxabaletan horrela ez dela diote. Batek esandakoaren arabera, nahikoa da, tentsio testuinguru batean mintzaldatzea emateko. Esaterako,

“...norbaitzek zeoze esaten botzu eta zuk.. pero tu qué dices... esan eta ya, erderara aldatzen zare”

...jakin badakigu, baina nola esangou ostia biherrien.... arranopola??Ez da bardiñe.

Honek, ikerketan eta marku teorikoan behin eta berriro agertu den baieztapenarekin bat dator, ingurunea zenbat eta euskaldunagoa izan, errezagoa da funtzio guztiak hizkuntza horretan betetzea. Aretxabaletako nerabeen kasuan, nahiago dute biraoak eta adar jotzeak gazteleraz egitea, eurentzat errezagoa da, euren ustez, indartsuagoa delako eta Aretxabaletan ohitura hori dagoela ikusten dutelako.

3.- Sare sozialetan eta whatsappen gehiagotan egiten dute gazteleraz euskaraz baino, edo bi hizkuntzak nahasten dituzte.

Aurreko ideiarekin erabateko lotura du gai honek. Gazteleraz euskaraz baino hobeto moldatzen diren beste egoera batzuetan pentsatzeko esan dietenean berehala erantzun dute sare sozialetan eta whatsappen gehiago egiten dutela gazteleraz, mezuak laburrak direlako eta bazile asko egiten dituztelako. Instagramean, guapa, sexy, guapito moduko hitzak asko erabiltzen dituzte. Ingelese ere askotan idazten dutela esaten dute. Eta , guapa, guapito, moduko hitzekin hasita gazteleraz amaitzen dutela esaldia. Edota, euskaraz hasi eta gazteleraz ere amaitzen dutela. Whatsappen bi hizkuntza erabiltzen dituzte, euskara eta gaztelera eta instagramean ingelesa ere bai.

“whatsappien zazenian ba, euskaraz hasi eta gero bazile bat sartzen dozu eta erderaz amaitzen dozu, edo euskañolez”

Guzti honek, gaitasun falta dutela adierazten du berriro ere, giltza egoera informaletan adar jotze eta haserraldietan euskaraz egiteko baliabideetan dago. Baliabiderik ez dutelako ez dute egiten, indartsuagoa delako gazteleraz eta barregarriagoa delako ere bai, euren iritziz.

4.- Hizkuntza ohituren inguruan.

Inkestari erreparatu diogu berriro ere eta gaitasun aldetik nerabe ia denek euskaraz dakitela esan diegu eta orokorrean inkestek jasotako lagun arteko erabilera datuak zeintzuk diren azaldu diegu, arrazoieta arakatzeko. Emandako erantzunen artean ohitura izan da errepikatuena. Hau da, harremanetan ohiturak asko agintzen duela diote. Pertsona batekin harreman bat gazteleraz hasi bada, harreman hori aldatzea oso zaila dela azpimarratu dute behin eta berriro eztabaida taldean. Hona hemen esandakoaren inguruko aipamen batzuk:

“Zu pertsona batekin ohitzen bazare euskaraz hitz egiten ba gero ez jatzu okurriruten erderaz eittia”

“Ohitxuria da. Zuk norbaittekin beti itxen badozu erderaz ba segiruko dozu erderaz eitten. Hori da ere kuadrillia batzuk euskeraz eitten dabe eta beste batzuk erderaz.”

Ingurumari honetan ere etxeko hizkuntzarekin lotura egin dute.

“Eske etxien euskeraz eitten bozu, gero kalien ere euskaraz ingozu. Eta adibidez nik nire etxien, nire gurasuek ez dakixe euskaraz baina nire lagunak etxien euskaraz eitten daurie gurasuekin eta orduen gero kalien guk ere kuadrillan euskaraz eitten dou”

Testuinguruak ere baldintzatzen du erabilera, eta horretarako tabernen adibidea jarri dute. Taberna batzuetan euskaraz egiten dute eta beste batzuetan gazteleraz. Euren iritziaren arabera, taberna euskaldun batean errazagoa da euskaraz hitz egitea.

“Urbaltzen bazaz adibidez ba, euskaraz itten dozu, jendiak euskeraz itten dauelako, baina Akorden neri ez jata okurriruten euskeraz eittia”

Komunikazioaz ari garela baliatuta, whatsappen dabilatzatenean eta sare sozialetan komunikatzen direnean, inkestetan, euskara gutxiago erabiltzen dutela azaldu diet. Bat etorri dira emaitzarekin eta arrazoi batzuk ere zeintzuk izan ahal diren bota dituzte. Hemen whatsappen gazteleraz erabiltzearen inguruko arrazoiak eta sare sozialetan gazteleraz erabiltzearen inguruko arrazoiak, hurrenez hurren.

“Whatsappien igual espresetako hobeto biak erabiltzen dozuz, zeoze gurozu esan eta igual hobeto esaten dozu erderaz eta pasetan dozu euskaratik erderara”

“Whatsappetan erantzuten dozu azkar eta momentu horretan erderaz pentsatzen bazaz ba erderaz idazten dozu. Eta faten zare hizkuntza aldatzen erraz”

“Nik askotan idazten dot erderaz baina ez zare konturaketan”

*“... edo igual jasotzen badozu whatsapp erderaz amaitzen dela.. ba zuk erderaz erantzuten dozu”
Edo erderaz eta euskeraz”*

Sare sozialetan, instagram, facebook eta horrelakoetan, euskaraz eta gazteleraz idazteaz gain, ingelesez ere idazten dutela esaten dute. Hona hemen ateratako pasarterik interesgarrienak:

“ba...ni adibidez mendixen nau, abesti bat entzuten eta erderaz bada ba ipinten dot abestixen letrie erderaz”

“Argazkixak eta etiketatzeke erderaz.. guapo, guapa”

“Adibidez euskaraz politx hori eta holan badaz, nik erabilten dot, baina iguel sexy, guapi eta holakuak gehixau erabilten dia”

“Esaldixak de echo, uste dot gehixau jarten diala ingelesez euskaraz baino”

“Nik ikusi dot my wonderfull eta holakuak”

Whatsapp-a eta sare sozialetan berriro ere adar jotzeak, malotismoa oso ohikoa da eta egoera horiek lekualdatzen dira whatsappera eta sare sozialetara.

5.- Kultura erderaz kontsumitzen dute

Musika batez ere ingelesez entzuten dute eta ondoren gazteleraz. Euskaraz ere asko entzuten dutela esan dute baina musika estilo guztiak ez daudela. Beste era batean esanda, euskaraz musika gutxiago dagoela eta horregatik entzuten dutela gutxiago baieztatu dute. Aipatu den beste arrazoi bat da, musika estilo bakoitzari hizkuntza bat hobeto datorkiola beste bat baino. Rock-a esaterako euskaraz ondo dagoela diote, hau da, ez dela arrotza entzuten baina RAPa esaterako apenas ez dagoela RAP estiloko euskal talderik. Pop estiloan abesten duen talderik ere ez dagoela esan dute, eta esaterako Ska gustokoa baduzu ba, talde bakarra dagoela euskaraz abesten duena. Punk-a ez dago euskaraz, PUNKa gazteleraz entzuten da. Beraz, aukera kontua da, norberari gustatzen zaion musika estiloan euskal talderik bada, entzuten dute baina ez badago ez. Ez da beraz kalitate kontu bat, aukera kontu bat baizik. Euskal musika sorkuntzak ez dira musika estilo guztietara iristen, eta musika estilo batzuk hizkuntza batzuekin lotzen dituzte.

“Nik musikia gehixen ingelesez, gero gazteleraz eta gero euskaraz entzuten dot, eta nik uste dot talde famosuak euskaraz gutxiau dazelako dala”

“Nik uste dot gustetan baldin bajatzu ba musika komertziala, ba.. euskeraz ez daukotzula”

“Musika komertzial gehixena gazteleraz dau”

“Nik, musikia batez ere ingelesez eta euskeraz entzuten dot, ze reggetoia ez jata gustetan”

“Nik, euskaraz gustetan jaten abesti bat topetan badot, askotan entzuten dot”

Egunkaria mahaigaineratu dugunean, nerabeek ez dutela irakurtzen adierazi dute. Gehien, begiratzekotan Goienkaria begiratzen dutela esan dute, baina bestela, etxean jasotzen dutenari ez diotela kasurik egiten.

“Egunkarixa?? Zer da hori? Bueno, igual goienkarixa, ostiraletan etxera allegetan dalako eta oso komodua dalako begiratu bat emuten dotzat”

“Neuk ere irakurtekotan goienkarixe irakurten dot, ze gainontzekuek Diario Vasco eta holakuek ez”

Egunkariarekin batera, ea libururik irakurtzen duten komentatu dugu eta ezezkoa esan dute. Euskaraz irakurtzen dituzte liburuak ikastetxean agindutakoak direla.

“Guk irakurten gabitzen liburuek beste kurtso batzuetakuek esandakuek dira, euskaraz dira, baina kurtzen esandakuek bestela ez dot irakurten”

“Nik ere eskolan emandakuek bakarrik irakurketan ditzut”

Aldizkariak, aldiz, euren gustokoak direnak, Cuore eta horrelakoak, denak gazteleraz direla aipatu dute.

“Jo! Eta adibidez aldizkarixek euskaraz ez daz, Cuore eta holakuak gustatzen jataz neri eta ez daz”

Bakarrak egin du aipu hori, gainontzekoek ez dituzte aldizkariak irakurtzen.

Interneten erabilera ere gazteleraz egiten dute, informazio gehiago dagoelako gazteleraz euskaraz baino. Errezago delako gazteleraz zerbait aurkitzea euskaraz baino.

Esan beharra dago, internet etxeko lanak egiteko edo pelikulak ikusteko erabiltzen dutela batez ere, bestela, sare sozialak eta whatsapp kontsumitzen dituzte eta horietan mugikorretik sartzen dira. Ordenagailuek ere nerabeen artean gero eta pisu gutxiago dutela adierazi dute.

“Ordenagailua, ba etxeko lan bat eitteko pizten dot, bestela dana mobilletik eitten dot, gainera ordenagailuak pilla bat tardaten dau, piztu eta denbora pilla bat etxoin bihozu...”

Irratia da batez ere euskaraz gehien entzuten dutena. Irratia entzuten gustora egoten direla esaten dute, euretako bostek edo entzuten dutela baieztatu dute eta gustatzen zaiela esan dute. Euskadi gazteak irratia oso dinamikoa dela diote, eta balorazio oso ona dauka. Erakargarri da eurentzako, euskaraz asmatu den formula on bat da.

“Euskadi gazteak ondo dau, musika ona jarten daue eta ondo pasetan dozu entzuten”

“Kriston baziliak daz, gainera jentia whatsappak ere botatzen ditzu eta ondo dau”

“Emateotzu idazteko aukerie”

“Gero musikie ba, bueno...oso gutxi jarten daue euskeraz”

“Ondo dau.. baina niretako, larregi hitz egiten daue”

“Ni etxetik kotxian etorten naizenian entzuten dot”

Telebista. Inkestetan telebistaren inguruko emaitzak zeintzuk izan diren azaldu ondoren emaitzak baieztatu dituzte. Telebista batez ere gazteleraz ikusten dute, baina hemen ere musika taldeetan bezala aukera gehiago dagoelako gazteleraz euskaraz baino.

Goenkale, Eskamak Kentzen eta horrelako telesail batzuk ikusi dituzte noizbait baina kendu direnetik orain ez dute bestelako programa erakargarriak aurkitzen euskarazko kanaletan. Txikitan, ETB3 denek ikusten zuten, eta orain nerabeentzako ez ETB1ek ezta GOITBek ez daukatela ezer erakargarriak esaten dute.

“Nik Goenkale ikusten nauen, eta Eskamak kentzen ere bai, baina kendu zauenetik, ba ez dot ikusten, bueno, gure etxien Gaur Egun ikusten da, baina bestela erderaz”

“ETB3 txikitan beti, gainera ba, Doraemon adibidez oin erderaz entzuten dot eta ezin da, oso harrarua itxen jata”

“Nik be bai, ETB3 ikusten nauen”

“Eta nik”

“Eta nik”

“Nik uste dot, la que se avecina, adibidez, ba hori ezin da ikusi euskaraz, ba Doraemon gazteleraz ikusi ezin da moruen”

“GOITBen, umiendako itxen daurie gauzak, mierda bat da, Txintxurretakin, baina gero guretako ez dau ezer”

“ETB1en ere ez dau ezer” Kaka bat da!”

6.- Euskara erreferenteen gaia ere irten da.

Hizkuntza bat ala bestea erabiltzerakoan gurasoen garrantzia azpimarratu dute behin eta berriro. Gurasoak eredu izan behar direla eta guraso askok ez dutela euskaraz hitz egiten kexatzen dira. Haurren erabileran ere, gurasoek eragina dutela jaso dugu arestian. Gurasoak, euskararen erabileran erreferente izatea aldarrikatzen dute. Euren iritziz ere, aurretik jaso dugun bezala, gutxien egiten duten adin tartea da. Beraz, gurasoak ere erabileran eragiteko giltza bat direla agertu da eztabaida taldeko bi atal desberdinetan.

“Gurasoek be bai, influentziau in bihar daue””Askoi, lotsia emutentze eittia, baina in in bi daue”

“Gurasuek ahalegiña in biko zauien”

Baina gurasoetaz at, erreferente artean, lehengusuak, anai arreba nagusiak ere daudela aipatu dute. Eta beraiek baino nagusiagoak diren gazte kuadrillak ere bai. Erreferente duten kuadrilla batek euskaraz egiten badu beraiengan eragina duela aipatu dute.

“Ba adibidez, zuri ondo jausten jatzun primo bat badaukatzu eta harek ba euskaraz eitten badau ba, zuk ere euskeraz eitten dozu”

“Zu baino nausixaua dan kuadrilla batek, ba gustaten bajatzu eta euskaraz funtzionaten badaue, ba, zure kuadrilliek be, euskeraz funtzionauko dau”

“Gu, gu baino nausixauai begira gabitz”.....

Erreferentziak gertukoak dira eurentzat eta eragina dute euren hizkuntza aukeraketan.

7.-Euskararen erabilera bultzatzeko proposamen pare bat

Aretxabaletako nerabeen artean euskararen erabilera bultzatzeko zerbait bururatzen zaien galdetu dugu. Honen inguruan, hiru proposamen egin dituzte:

“Ba adibidez, klasien esaten daurie irakasliak eta, ba notan zati bat jarreran dagoela, ba hor sartu biheko litzeke.... Euskaraz itxen dauenak ba jarreran, nota hobia eukitia, eta ez dauenak itxen ba bajuaua”

“Hori ondo dau. Ba adibidez, nota osuen %10a izetia...”

“Bai, nik uste dot ere ideia ona dala, baina hori in ahal daue?”

Bigarren proposamen bat da, euskararen aldeko kanpainak egitea.

“Euskerien egunien adibidez, baina ez loramendikuen euskerien egunien, bestien, ba jende gehixauk parte hartzia eta kontzientziatzia...”

Hirugarren proposamena eurek gazteleraz egiten dutenei euskaraz egitea izan da.

“Ba igual ba erderaz itten dabenei, euskeraz eittia”

---“Ohiturak aldaketia oso zaila da..” “Ze in biko litzake?...”

4. ONDORIOAK

1.- Aretxabaletako nerabeak eta euskara ezagutza.

Emaitzetan ateratako datuen arabera Aretxabaletako nerabeek euskaraz hitz egiteko gaitasun handia dutela esan daiteke. Askok dira euskaraz ondo eta oso ondo moldatzen direnak, eta lehen hizkuntza euskaraz ez dutenek ere kalearen eta eskolaren bitartez ikasi eta maila ona lortzen dute, Aretxabaletan. Izan ere euskaldun kopurua altua izateaz gain, eskoletan D eredua bakarrik eskaintzen da eta eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdi ekintza gehienak ere euskaraz antolatzen dira. Ondorioz, lehen hizkuntza etxean erdera dutenek ere eskoletako orduetaz gain, harreman handia dute euskararekin. Testuinguru nahiko euskaldunean bizi direla esan daiteke.

Askok *“euskaraz pentsatzen duzun”* baieztapenarekin bat datoz, euskaraz oso ondo moldatzen direla diotenak ere gehienak dira, baina adarra jotzeko edota haseratzekoan erakargarriagoa egiten zaie gaztelera euskara baino. Jasotako informazio hau bat dator Kike Amonarraizek marko teorikoan diotenarekin, baita Xabi Paiak esandakoarekin ere, edota David Anautek azaldutakoarekin: gazte euskaldun askok adarra jotzeko eta iraintzeko erderara jotzen dutela baieztapenarekin alegia. Marko teorikoan, bai ARRUE programako ondorioetan edota adituen iritzi artikuluetan jaso den bezala, testuinguruak eragina du erabilera esparru guztietan eta testuingurua zenbat eta euskaldunagoa izan, ezagutza handiago izango da eta orduan eta funtzio gehiago emango diote euskarari. Oñati dugu horren adibide, ikerketa kualitatiboan nerabeek esandakoaren arabera.

Dena den, nerabeek ez dute horrela bizi, ez dute uste gaitasun kontu bat denik, alderantziz, hizkuntza desberdinez baliatzen direla uste dute, zerbait orekatua balitz bezala, euren artean hitz egiteko euskara aukeratzen dute eta adarra jotzeko edo iraintzeko gaztelera.

Proposamen edo irunzkin moduan indartu beharreko kontu bat da honakoa, nerabeek euren bizitzako funtzio guztiak ez dituztelako euskaraz burutzeko gaitasunik. Lagunartean eta egoera informaletan dagoen hutsune hori, hutsune garrantzitsua da, aisialdian ematen delako, berdinaren arteko harremanetan eta kalean, lagun taldean. Horregatik, eragin beharreko gabezia bat dela azpimarratu behar dugu. Marko teorikoan jasotakoareki lotuta, Joshua Fishmanek ere gomendio hori ematen du, hizkuntza baten berreskurapenean, kalea eta etxea direla berreskuratu eta mimatu beharreko esparruak, eta ikerketa honetan emandako datuek hori berresten digute.

Artola, Izagirre eta Iturainen iritziarekin edota Josu Amezagak nahiz Fishman beraren iritziekin bat gatz, ikastetxeek euskararen normalizazioan eurek bakarrik ezer gutxi egin dezaketela diotenean. Irakaskuntza esparru arautua da eta hizkera informala esparru ez arautuan ikasten da.

Gabezia honi erantzuna kalean eman behar zaio eta kaleari baliabideak eskaini behar zaizkio ezinbestean.

2.-Aretxabaletako nerabeak eta euskararen erabilera.

Etxea, eskola, kalea ibilbide horretan, etxean ematen da erabilerarik baxuena. Fishmanen HINBE proposamenera joz, kalea eta etxea dira euskara babesteko eta euskararen erabilera bermatzeko zaindu beharreko espazioak. Familiari lotuta, Fishmanen BAEN 6. mailako deskribapenaren ezaugarrietako bat baieztatzen da gure ikerketan. Guraso mistoen elkarteak, euskararen erabilera etxean inon baino baxuagoa izatea ekarri baitu, berak aurreikusi bezala. Datuek hori eman dute eta eztabaida taldean ere guraso diren adin tartekoek gutxien hitz egiten dutenak direla esateaz gain, gurasoek euskaraz gehiago egin beharko luketela jasotzen da. Ondorioz, hemen dugu beste erronka bat: erdal guraso elebakarrak euskalduntzea eta etxeko giroa euskalduntzeko estrategiak martxan jartzea alegia. Gurasoak zeregin horretan inplikatu behar ditugu eta horretarako erraztasunak jarri behar dira. Ondoko hau, Fishmanek emandako beste gomendioetako bat da, hizkuntza gutxituen berreskurapenean etxean euskara bultzatzeko estrategiak eta taktikak lantzea, hain zuzen ere.

Euskararen erabileraren gotorlekua eskola da eta eskola barruan, gela. Nerabeek irakasleekin hitz egiten dute euskaraz gehien. Ondorio hauek bat datoz berriro ere ARRUE proiektuak emandako ondorioekin.

Euskararen erabilera gela barruan eta jolas orduan alderatzen baditugu desberdintasuna ez da oso handia. Informazio hori beste behin ere ARRUE proiektuko emaitzekin bat dator: testuingurua zenbat eta euskaldunagoa izan eta eskolaz kanpoko jarduerak zenbat eta euskaldunagoak izan, orduan eta erabilera altuagoa ematen da ikasleen artean.

Esan berri dugunarekin lotuta, Eskolaz kanpoko jarduerari dagokionez saskibaloia euskalduntzeko premia dagoela argi geratu da ikerketan. Horretaz gain, nerabeen arteko erabilera maila mantendu eta gehitzea komeni zaigu, Fishmanen aholkuei kasu eginez. Helburu hori erdiesteko ezinbestekoa da lan honetan protagonista diren irakasleen, hezitzaileen eta entrenatzaileen arteko elkarlana sustatzea, aurrerago sakonago ikusiko dugun bezala.

Lagun arteko erabilera datuak nahiko onak direla uste dugu. Dena den, gure erronka, euskaraz eta gazteleraz antzera egiten dutenak euskarara erakartzea da eta gehienetan euskaraz egiten dutenak beti euskaraz egitera animatzea. Jose Maria Sanchez Carrionen eremu sinbolikoaren nuklearizazioaren inguruko proposamena aintzat hartu beharko genuke, arnaguneak sustatu, beti euskaraz egiten dutenak saritu, mimatu eta erreferente bihurtu gainontzeko nerabeengan eragina izan dezaten eta indarrak batzen joan daitezen.

3.- Nerabeak eta euskararekiko duten jarrera.

Nerabeek euskararekiko jarrera oso ona dutela erakutsi digute ikerketak emandako emaitzetan. Horretaz gain, Aretxabaletan euskaraz gutxi hitz egiten denaren irudia dute eta adin tarreak aztertuz gero, euren iritziz helduak eta nerabeak dira euskaraz gutxien hitz egiten dutenak. Lotura zuzena egin ez badute ere, euren gurasoen adin tartekoak dira heldu bezala identifikatu

dituztenak. Gurasoei leporatzen diete etxean euskaraz ez hitz egitearen ardura, etxean euskaraz hitz egiten duten gazteek kalean euskaraz hitz egiten dutela diote, eta horregatik gurasoak gehiago inplikatu beharko liratekeela iruditzen zaie.

Dena den, euskaraz gehiago hitz egitea nerabeen erantzukizuna ere badela diote, euren aldetik zerbait gehiago egin dezaketela uste dute eta ohiturak aldatu beharko lituzketela argi adierazi dute nahiz eta oso zaila iruditzen zaien.

Amaitzeko, kontuan hartzekoa da oso, nerabeek Aretxabaleta euskaldunagoa izan dadin nahi dutela.

4.- Kultur Kontsumoa erderaz egiten dute gehienbat aukera gehiago dituztelako.

Erdal kontsumoa kalitate eta aukera kontu bat da nerabeen ustez. Aukera zabalagoa dago erderaz euskaraz baino eta horregatik kontsumitzen dute gehiago erderaz. Dena den, erderaz diogunean, ez gara gaztelaniaz ari, ingelesez ere kontsumitzen dutelako, batez ere musika. Nerabeek kultura produktuak kontsumitzerakoan gustokoa edo kalitatezkoa dena bilatzen dutela adierazi digute, beste era batean esanda, eurentzako erakargarria dena kontsumitzen dute, gazteleraz, euskaraz edo ingelesez, hizkuntzari erreparatu gabe.

Arrue proiektuan jasotako beste ondorioetako batera eramaten gaitu honek. Artolak, Izagirrek, Iturainek eta Josu Amezagak esan bezala, telebista gazteleraz ikusten dute nerabeek ETB1 ez zaielako interesatzen eta GOITBen ez dagoelako eurei zuzendutako ezer. Aditu hauek kalitatearen premiari egiten diote erreferentzia, eta Josu Amezagak ETB1ean nerabeei zuzendutako programazioaren aldarria egiten du. Gure ikerketan premia horiek biak berresten dira.

Kalitatearen lekuko irratia dugu, eta burututako eztabaida taldean esan bezala Euskadi Gaztea entzuten dutela esan dute, gertukoa delako eta gustatzen zaielako. Azken finean, kalitatezkoa dela iruditzen zaielako.

Jasotakoak aztertu ondoren gure iritziz euskarazko kultur kontsumoa sustatzeko nerabeentzako gertuko eta kalitatezko produktuak asmatu behar dira. Eurentzat gertukoak direnak eta hizkera informalak, adar jotzeak eta biraoak erabiltzen dituztenak.

Euskal kultur kontsumoaren sustapena bultzatzeko premia ageri da eta horretarako proposamen batzuk egiten ausartu gara. Euskal musikaren sustapena esaterako, Udalak jaiak direnean euskal taldeak ekarriz egin daitekeela uste dugu. Goitb-ek nerabeentzat erakargarria eta gertukoa izan daitekeen produktu bat sortzea litzateke beste proposamen bat eta euskaraz diren webguneak, gaztelekuan ere bultzatzea edota sare sozialak euskaraz erabiltzeko kanpainak abian jartzea besteak beste.

Amaitzeko, Aretxabaletan, Mondragon Unibertsitateko komunikazio fakultatea bertan izanda, eta GOIENA komunikazio taldea dugula kontuan hartuta, gai honen inguruan hausnarketa sakon bat bultzatzea daitekeela uste dugu, biak ala biak asko eman dezaketelako.

5.- Nerabezaroan euskararen galera bat ematen da eta berriro berreskuratzen da.

Nerabezaroa, bizitza etapa ezegonkorra dela esatean denok bat etorriko ginateke. Haurtzaro eta helduaro arteko transizio etapatzat har daiteke. Nerabezaroan nolabait esatearren, litxarkeriek eta botelloiak uztartzen dira, emozioak puri-purian diren garaia da, gurasoak etsaitzat hartzen den bizi zikloa, alegia. Ezegonkorra, apurtzailea eta kontraesankorra da nerabezaroa. Horregatik, kontra eramatearren eta haurtzarotik helduarora igarotzean mundu berri bat zabaltzen zaielako aldatzen dute hizkuntzaz.

Aretxabaletako nerabeetan horrela ematen da, eta marko teorikoan jasotzen diren Lionel Jolyren iritzia edota Iñaki Lurrebasoren hipotesia berresten da gure ikerketan. Izan ere, haurrak DBH1era, haurtzaroko hizkuntza ohiturekin datoz eta DBH1ean oraindik ohitura hori mantentzen badute ere DBH2an ematen dute aldaketa. Mundu berria orduan zabaltzen zaie, jende berria, zentro berria, eta berriro ere desobedientzia hori eman ostean heldutzen hasten dira eta euskarara itzultzen dira. Kontzientzia hartzen dute, bertako hizkuntza delaKO eta erabili behar dutelaKO, baina bidean batzuk galtzen dira, eta horiek Jolyk esan bezala berreskuratzea oso zaila da, alegia.

Ikerketak emandakoaren arabera, erabileran jeitsiera nabarmenena ematen da. adin tarte honetan aldea txikiagoa izan dadin eragin beharko litzateke.

6.- Erreferenteen garrantzia

Haurtzaroan gurasoak dira erreferenteak, nerabezaroan nagusiagoak diren gazteak, gazte kuadrillak eta aisialdi esparruko eragileak. Guzti horiek egin behar dira euren balioaz konsziente eta duten eragiteko gaitasunaz konsziente. Erreferenteak dira gure ikerketako arnagune batzuk, marko teorikoan Fishmanen arabera edota Txepetxek jasotakoaren arabera eremu sinbolikoaren nuklearizazioa gorpuzteko eragileak.

Horregatik Aretxabaletan gazte kuadrilla euskaldunak identifikatu, nerabeekin harremana duten kirol begirale, hezitzaile eta gaztelekuko hezitzaileak batu eta hausnarketa bat bideratu beharko litzateke. Zer egiten duten eta egiten duten horrek duen eraginaz hausnartzea da kontua, eta hortaz ohartaraztea eta hori mantentzeko eta hobetzeko pausuak definitzea.

Horietaz gain, nerabeen artean ere euskaraz hitz egiten dutenak hauspotu behar ditugu, euskaraz hitz egiten duten kuadrillak zaindu, gainontzekoentzat erreferente bilaka daitezen eta euskarara erakarri ditzaten. Berdinen arteko harreman horretan ere eragin behar da, eta hori eremu formalak eta eremu ez formalak ematen dizkigun aukerez baliatuta egin beharko dugu.

Espazio formalean, agian, gazte nerabe literatura susta daiteke, hizkera informal gaztea erabiltzen dituzten liburueta ari gara, horiek irakurtzen baitituzte ikastetxeetatik bidaliak. Ausarta litzateke bestalde, euskararen erabilera bultzatzeko motibazio saioetan hauek ere aztertzea, esamoldeak... proposamen guztiak, euskara gozatzeko beste modu bat eskaintzea.

7.- Hipotesi batzuk bete dira

Ikerketan botatako hipotesiak orohar bete dira. Kultur kontsumoa euskaraz baino gazteleraz egiten dute gehiago. Nerabeek euskararen aldeko jarrera dutela dioen hipotesia baieztatu da eta lehen hipotesia izan da bete ez dena. Lehen hipotesiaren arabera nerabeek lehenbizi euskaraz hasten dute prozesua eta gero ez dira euskarara bueltatzen, hor egin dugu kale, alegia.

8.- Aurrera begira zer?

Aretxabaletan euskararen normalkuntza dabilzan eragileekin ikerketa honetan jasotakoak konpartitzea proposatzen dugu, eta aukera horretaz baliatzea, nerabeen artean eragiten dugun eragile guztien arteko komunikazio kanal bat zabaltzeko. Bakoitzak besteari euskararen erabilera nola sustatzen duen azaltzeko, dituen hutsune eta zailtasunak konpartitzeko, ikerketa honek emandako ondorioekin alderatzeko eta aurrera begirako helburu batzuk marrazteko ezinbestekoa dugu komunikazioa.

Aretxabaletako udala, Kurtzebarri eta Arizmendi Ikastetxeak, euskaltegia, eskolaz kanpoko ekintzetako arduradunak, guraso elkarteak, dira besteak beste sare honetara gonbidatzen ditugunak. Denok helburu bera konpartitzen dugulako bidea elkarrekin egitea proposatzera gatoz.

5. BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

- 1.- ARRUE PROIEKTUA IKASLEAK HIZTUN (2011). Ikerketaren emaitzak eta adituen iritzi azalpenak. 106-118 orri.
- 2.-GOIKOETXEA, Nekane (2011). Arrue ikerketa-proiektuko datuen kristalezko sabaiaz: irunzkinak, galderak, ikerbideak. In: Ikasleak Hitzun: 247-249 orri.
- 3.- ZALBIDE, Mikel (2011)Eskola eta hizkuntza: ardo berria zahagi zaharrean. In: Ikasleak Hitzun: 151-165 orri.
- 4.-JOLY, Lionel (2011)Gazteen euskararen erabilera, ezagutza eta eskolaren eragina. In: Ikasleak Hitzun 273-278 orri.
- 5.- MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (2011) Euskara EAEko Hezkuntza Sisteman: irakurketa soziologikoa. In: Ikasleak Hitzun: 121-135 orri.
- 6.- ARTOLA, IZAGIRRE, ITURAIN (2011) Arrue Ikerketari buruzko NOLEGAtik egindako irunzkina. In: Ikasleak Hitzun: 195-202 orri
- 7.-DARQUENNES, Jeroen (2011) Hizkuntza.erabilera euskal autonomoa erkidegoko eskolaetan.Arrue proiektua inspirazio iturri modura Europako Hizkuntza Gutxituen eskuratze plangintza egiteko. In: ikasleak Hitzun:109-120 orri.
- 8.- ALDEKOA, Jasone (2011) Mintzaldatzearen argi-ilunak edo bide luzean urrats labur. In: Ikasleak Hitzun: 173-188
- 9.- UGALDE BEGOÑA, Amaia (2013) Elorrioko Euskara eta Gazteak. HIZNET . Sakontze egitasmoa. Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea
- 10.- Zalbide, M, Erize, X (2015) 1.3.Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. HIZNET, Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 11.- Soziolinguistika Klusterra (2011). Datu soziolinguistikoen bilduma. Aretxabaleta 1986-2011. Aretxabaleta.
- 12.- Soziolinguistika Klusterra.(2011). Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak. <http://www.soziolinguistika.eus/node/4379>

- 13.- Martinez,Z. Berrio-Otxoa, k. Altuna, O , Jausoro, N (2015).2.1. Ikerketa Soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak. HIZNET, Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 14.- LEUNDA SENPERENA, Mikel (2007) Soraluzeko Gaztetxoak eta Euskara. Gaitasuna, erabilera eta jarrerai buruzko azterketa. HIZNET, sakontze egitasmoa. Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 15.- EBETE Hizkuntza Zerbitzua. (2014-2015) Motibazioaren ontzia. Aretxabaleta.
- 16.- Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekintza plana 2015-2016. Ane Lore Estala
- 17.- AMONARRIZ, Kike (2015). 3.2.Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea. HIZNET Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 18.- Lezeta, M. San Martin, M (1991). Giro urbanoko gazteak eta euskara. Deba bailarako gazteen iritziak gazteek interpretatuta. Bilbo. Udako Euskal Unibertsitatea.
- 19.-ZABALA, Josune (2007) Oin zolak urra-urra eginda. In: ARGIA Larrun aldizkaria: 4,5 orri, Lasarte-Oria.
- 20.- JOLY, Lionel (2007) Beste adin taldeek ere plangintza behar dute. Gazteak eta euskara. In: ARGIA Larrun Aldizkaria: 6,7 orri. Lasarte-Oria
- 21.- AMONARRAIZ, kike (2007) Garai berriak, hizkera berriak. In: ARGIA.Larrun aldizkaria: 12,13 orri. Lasarte-Oria.
- 22.- .-ANAUT, David (2007) , Zergatik egiten dute gazte euskaldun askok euskaraz? In: ARGIA.Larrun aldizkaria: 16,17 orri. Lasarte-Oria.
- 23.- ETXELEKU, Iñaki (2007). Gazteak eta euskara Euskaralands. In: ARGIA. Larrun aldizkaria: 8,9 orri. Lasarte-Oria.
- 24.- PAIA, Xabi (2007)Zazpi barako atorra..Gazteak eta euskara. In:Larrun aldizkaria. Orri 14,15. Lasarte-Oria.
- 25.- ZABALETA, Olatz (2007). Aisian aixe mintza, In: ARGIA. Larrun Aldizkaria: 10,11 orri. Lasarte Oria.

6. ERANSKINAK

NERABEEN EUSKARAREN GAITASUNAREN, ERABILERAREN ETA JARRERAREN INGURUKO INKESTA

Adina:

Kurtsoa:

Herria:

Inkesta hau bete dezazun eskatzen dizut. Inkesta anonimoa da, beraz, esan benetan pentsatzen duzuna. Markatu X batekin zure erantzuna dagokion gelaxkan.

Mesedez, ez ahaztu goiko datuak betetzen.

Eskerrik asko!

1.-Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

	Oso ondo	Ondo	Nahiko ondo	Gaizki	Ezer ez
Zuk					
Guraso 1					
Guraso 2					

	Gutiz ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados
Orokorrean euskaraz pentsatzen dut				
Gustatzen zait erabiltzen dudana euskara				
Euskaraz irakurri edo irratia entzutean dena ulertzen dut				

	Euskaraz beti	Gehienetan euskaraz	Euskara/gaztelera antzer	Gehienetan gaztelera	Gaztelera beti
Zein hizkuntzatan moldatzen zara hobeto?					
Zein hizkuntzatan hitz egiten zenuen 3 urte arte?					
Haserre zaudenean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?					
Txisteak kontatzen dituzunean zein hizkuntzatan egiten duzu?					

2.- Zein hizkuntza erabiltzen duzu egoera hauetan?

	Euskaraz beti	Gehienetan euskaraz	Euskara/gaztelera antzer	Gehienetan gaztelera	Gaztelera beti
Amarekin					
Aitarekin					
Amak eta aitak euren artean?					
Neba-arrebekin					
Gelan zaudela gelakoeekin					
Gelan Irakasleekin					
Jolasorduan gelakideekin					
Herriko dendetan					
Ezezagun batekin					

**3.- Eskolaz kanpoko ekintzak: erantzun parte hartzen duzun eskolaz kanpoko ekintzetan bakarrik.
Zerrenda honetatik zerbait falta bada gehitu azken gelaxkan**

	Euskaraz beti	Gehienetan euskaraz	Euskara/gaztelera antzera	Gehienetan gaztelera	Gaztelera beti
Futbolean					
Saski-baloian					
Kiroldegiko beste kirol batzuetan (xunba, spining)					
Musika eskolan					
Instrumentu klasetan					
Partikularrena					
Ingelesean					
Pinturan					
Gaztelekuan					
Bestelakorik:					

4.-Lagun artean

	Euskaraz beti	Gehienetan euskaraz	Euskañolez	Euskara/gazte lera antzera	Gehienetan gaztelera	Gaztelera beti
Kalean zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?						
Whatssapak ze hizkuntzetan idazten dituzue?						

Sare sozialetan (instagram, facebook...) zein hizkuntza erabiltzen duzue lagunartean?						
--	--	--	--	--	--	--

5. Kultur- Kontsumoa

	Euskara beti	Gehienetan euskara	Euskara/gaztelera antzera	Gehienetan gaztelera	Gaztelera beti
Egunkaria zein hizkuntzatan irakurtzen duzu?					
Interneten zabiltzanean?					
Musika ze hizkuntzatan entzuten duzun?					
Telebista ze hizkuntzatan ikusten duzu?					
Irratia ze hizkuntzetan entzuten duzu?					

6.-Euskara Aretxabaletan: jarri zuk portzentaia.

1. Zure ustez %..... zenbatek dakite euskaraz zure herrian?
2. Zure ustez %..... zenbatek hitz egiten dute gehienetan euskaraz zure herrian?
3. Gazteen artean zure ustez %..... zenbatek dakite euskaraz zure herrian?
4. Zure ustez gazteen artean %..... zenbatek hitz egiten dute euskaraz zure herrian?
5. Gustatuko litzaizuke zure herrian euskaraz gehiago egitea?

Bai

Ez

7.-Euskararen egoera

	Oso ona	ona	Erdipurdikoa	Nahiko txarra	Oso txarra
Euskararen egoera Debagoienan nolakoa da?					
Euskal Herrian euskararen egoera nolakoa da?					

	Asko	Nahiko	Gutxi	Batere
Euskararen egoera interesatzen al zaizu?				
Kezkarik sortzen al dizu?				

8.- Azken galderak

1.- Nahiko zenuke euskaraz gehiago egitea, zuk?

Bai

Ez

2- Herrian euskararen erabilera bultzatzeko beharra dagoela uste duzu? Zergatik?

3.-Zer egin beharko litzateke euskaraz gehiago egiteko? (erantzun galdera honi nahi baduzu bakarrik)

Eztabaida taldea gidoia

Eztabaida taldea: ekainaren 17an, 9:15etan Aretxabaletako gaztelekuan hasi eta 10:30etan amaitu.

Pertsona kopurua: DBH4ko 7 ikasle

Partaideen ezaugarriak: euskararen aldeko jarrera duten gazteak baina batzuetan hitz egiten dutenak.

Perfil honetako partaideak aukeratu ditugu batez ere euren diskurtsoa ulertzeko, euskaraz gehiago egin dezaten euren hutsuneak identifikatzeko eta euskaraz zergatik gehiago hitz egiten ez duten aztertzeko.

Galderak

- 1.- Euskararen egoera Aretxabaletan, ezagutzari eta erabilerari dagokionez.
- 2.- Hizkuntzarekiko harremanetan euren bilakaera nolakoa den aztertu. Zergatik egiten dute mintzaldatzea, eta noiz ematen da hori?
- 3.- Kultur kontsumoaren inguruko datuak mahaigaineratu eta arrazoiak galdetu.

.